



BERTSOLARITZA
LE BERTSOLARISME


09

Joxerra Garzia

BASQUE.



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA



BERTSOLARITZA
LE BERTSOLARISME

Joxerra Garzia

BASQUE.

1	Euskara La langue basque
2	Literatura La littérature
3	Musika klasikoa La musique classique
4	Euskal kantagintza: pop, rock, folk La chanson basque : pop, rock, folk
5	Artea L'art
6	Zinema Le cinéma
7	Arkitektura eta diseinua L'architecture et le design
8	Euskal dantza La danse basque
9	Bertsolaritza Le bertsolarisme
10	Tradizioak Les traditions
11	Sukaldaritza La cuisine
12	Antzerkia Le théâtre

Etxepare Euskal Institutua sortutako bilduma honek hamabi kultura-adierazpide bildu ditu. Guztiak kate bakarraren katebegiak dira, hizkuntza berak, lurralte komunak eta denbora-mugarri berbereek zeharkatzen dituztelako. Kulturaren eskuistik, euskararen lurrealdean tradizioa eta abangoardia nola uztartu diren jasoko duzu. Kulturaren leihotik, bertakoaren eta kanpokoaren topalekua erakutsiko dizugu. Kulturaren taupadatik, nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jakiteko aukera izango duzu. Liburu sorta hau abiapuntu bat da, zugan jakin-mina eragin eta euskal kultura sakonago ezagutzeko gogoa piztea du helburu.

Cette collection créée par l'Institut basque Etxepare réunit douze disciplines culturelles. Elles sont toutes les maillons d'une même chaîne, car elles partagent la même langue, le même territoire, et la même histoire. À travers notre culture, nous vous invitons à être témoin de la fusion entre tradition et innovation, du mélange du local et de l'étranger dans le territoire de la langue basque. Nous vous invitons à découvrir d'où nous venons, où nous en sommes, et vers où nous allons. Cette collection est un point de départ destiné à éveiller votre curiosité et à susciter le désir de mieux connaître la culture basque.

BERTSOLARITZA

LE BERTSOLARISME

Joxerra Garzia

- | | | |
|----|--|---|
| 10 | Hitzaurrea | Préface |
| 12 | Gaur egungo bertsolaritzaren gorakada | L'impulsion du bertsolarisme actuel |
| 16 | Bertsozale Elkartea | L'Association des amis du bertsolarisme |
| 18 | Bertsolaritza artearen agerpenak | Les démonstrations de l'art du bertsolarisme |
| 26 | Bertsolari ofizioa | La fonction de 'bertsolari' |
| 32 | Bertsolaritzaren historia laburra | Brève histoire du bertsolarisme |
| 38 | Bazterreko bertsolaritzatik lehenbiziko txapelketetara | Du bertsolarisme marginal aux premiers championnats |
| 80 | Bertsolaritza informazioaren gizartean | Le bertsolarisme dans la société de l'information |
| 82 | Amaiera-oharrak | Notes de fin |
| 90 | Eranskinak | Annexes |
| 92 | Bibliografia | Bibliographie |



Nola lortu du Mendebareko Europako berezko hizkuntzen artean indoeuroparra ez den bakarrak bere lekua hartzea XXI. mendean? Zertan datza euskal kultura gaur egun eta zertan bereizten da besteengandik? Zer presentzia merezi du nazioartean?

Liburu hauen bidez, Etxepare Euskal Institutuak erantzun batzuk proposatu nahi ditu, beste kultura eta identitate batzuei eskua luzatzeko asmoz. Elkar ezagutzea baita elkar estimatzeko eta ulertzeko modu bakarra. Ongi etorri.

Comment la seule langue indigène d'Europe occidentale qui ne soit pas d'origine indo-européenne a-t-elle réussi à prendre sa place au XXIe siècle ? Qu'est-ce que la culture basque aujourd'hui, et qu'est-ce qui la distingue des autres cultures ?

À travers les livres de cette collection, l'Institut basque Etxepare souhaite proposer des réponses, afin de tendre la main à d'autres cultures et identités. Car se connaître mutuellement est le seul moyen de nous apprécier et de nous comprendre. Ongi etorri.

Liburu honen helburu nagusia bertsolaritza zertan datzan ulertu ahal izateko argibideak eskaintzea da. Lehenengo eta behin, bertsolaritzak gaur egun bizi duen egoera bere konplexutasun guzian azaltzen saiatuko gara. Behin fenomeno honen egoera aurkeztu ondoren, bertsolaritzaren historia aztertuko dugu hasi, bere hastapen ilunetatik eta gaur egunera arte, ahozko tradizio honen bizitza luze eta arrakastatsuko protagonista nagusietako batzuen bitartez.

Kontuan hartuta, zorionez, gaur egun oso erraz lor daitekeela bertsolaritzari buruzko nahi den informazio guzta, egokiago iritzi diogu, liburu honetan informazio hori pilatzen jardun gabe, berorren interpretazio zuzenerako giltzak eskaintzeari. Obra honetan zehar kasu jakin bakoitzaren gaineko informazio gehigarria aurkitzeko erreferentziak ematen dira.

Aurrera jarraitu baino lehen, bertsolari, bertso eta bertsolaritza kontzeptuak argitzea eta zehaztea komeni da.

Nor da bertsolari? Gaur egun, bertsolaritzat hartzen da entzuleria baten aurrean bertsoak bat-batean asmatzeko gaitasuna daukana, eta ez beste inor. Beraz, bertsopaperak idazten dituenari, edo aurretiaz sortu eta buruz ikasiriko bertsoak abesten dituenari ez zaie aitortzen bertsolari estatusa, bertso horiek kalitaterik handienekoak badira ere.

Zer da bertsoa? Bertsoa, erdarazko *verso* edo *verse* ez bezala, estrofa osoa da, eta ez estrofa horretako lerro bakoitza.

Bertsolaritza hitzak adieraz dezake bertsoak bat-batean asmatzeko artea edo gaitasuna (bertsogintza), edota aipatu fenomenoaren inguruan sortu den mugimendu soziala.

Eman ditugun argibide hauek zehaztapen terminologikoak baizik ez dira eta daukaten helburu bakarra gaizki ulertuak saihestea da. Oinarrizko kontzeptu horien eta beste batzuen definizioa, eta horrekin batera, bertsolaritzaren errealitate konplexua, orrialde hauetan zehar argituz joango gara. Horixe da, behintzat, egileak espero duena.

L'objectif principal du présent ouvrage est de proposer les clés nécessaires pour appréhender le bertsolarisme. En premier lieu, nous tenterons de rendre compte de la réalité actuelle du bertsolarisme dans toute sa complexité. Une fois exposé son état des lieux actuel, nous étudierons l'histoire du bertsolarisme depuis ses sombres origines jusqu'à nos jours, à travers certains des principaux protagonistes de la longue et fructueuse histoire de cette tradition orale.

Bien que, par chance, nous disposons d'informations abondantes sur le bertsolarisme, nous avons essayé de ne pas faire une accumulation de données, mais d'apporter au lecteur les clés nécessaires pour l'interprétation de ces informations. Tout au long de cet ouvrage, nous indiquons des références pour que le lecteur puisse trouver des informations complémentaires sur chaque sujet traité.

Avant d'aller plus loin, il convient de préciser et de définir les concepts de *bertsolari*, *bertso* et *bertsolarisme*.

Qui est *bertsolari*? De nos jours, est *bertsolari* uniquement celui ou celle qui est capable d'improviser des *bertsos* devant un public. Quiconque écrit des *bertsos* ou chante des *bertsos* préalablement créés et mémorisés n'est pas reconnu comme *bertsolari*, même si ces *bertsos* sont d'une très grande qualité.

Qu'est-ce qu'un *bertso*? Le *bertso*, contrairement au vers français, n'est pas une ligne d'une strophe, mais la strophe entière.

Le terme *bertsolarisme* peut désigner à la fois l'art ou la capacité d'improviser des *bertsos* (*bertsogintza*) et le mouvement social créé autour de ce phénomène (*bertsolaritza*).

Il convient de prendre ces premières indications pour ce qu'elles sont : de simples précisions terminologiques dont l'objectif est d'en faciliter la compréhension. Au fil des pages, nous expliciterons la définition de ces concepts fondamentaux et d'autres concepts, ainsi que la réalité complexe du bertsolarisme. C'est en tout cas le souhait de l'auteur.

Gaur egungo bertsolaritzaren gorakada

1. 2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala. Bilbao Exhibition Centre (BEC), Barakaldo.

Nahitaezko soldadutzaren aurrean intsumiso deklaratzeagatik ezarri zioten epaietan, Jon Sarasuak, epailearen galderari erantzunez, bertsolari ofizioa zertan zetzan azaldu behar izan zuen. Epaian jasoa geratu denez, Jon Sarasuaren adierazpenetik epaileak zera ulertu zuen, bertsolariak zirela «una especie de juglares sabelotodo»; halere, definizio horri zuzenketa batzuk egin beharra dago.

Hasteko, bertsolariaren profila hurbilago legoke trobadoretik eta ez juglaretik, bertsolariak ez baititu abesten beste norbaitek (edo berak aurretiaz) moldaturiko koplak; aitzitik, inprobisatu egiten ditu, abestu ahala, bere bertsoak. Dena dela, eta alderdi hau aurrekoan baino askoz ere garrantzitsuagoa da, gaur egungo bertsolariak juglare edo trobadore gisa definitzeak okerreko iritzi bati eman liezaioke bide, hots, antzinako fenomeno bat dela, arrazoi misteriotsuren batengatik, duela hainbat mende praktikatzen zen bezalaxe gure egunetara arte iraun duena. Hor, beraz, erlikia batez ariko ginateke, gauza miresgarri bezain alferreko batez, lehenbiziko asmakari aeronautikoak edo XIX. mendeko idazmakinak bezala.



1

1. Championnat national de bertsolari du Pays basque, finale de 2017. BEC, Bilbao (Biscaye).

Lors de son procès pour insoumission au service militaire obligatoire, le *bertsolari* Jon Sarasua a dû expliquer, en réponse à la question du juge, en quoi consistait son métier de *bertsolari*. Selon les déclarations de Jon Sarasua, le juge déduit que les *bertsolaris* devaient être « une sorte de ménestrel je-sais-tout », une définition qui mérite d'être nuancée à certains égards.

En premier lieu, le profil du *bertsolari* serait plus proche de celui du troubadour que celui du ménestrel, car le *bertsolari* ne chante pas les compositions des autres (ou ses propres compositions écrites au préalable), mais improvise les *bertsos* au fur et à mesure qu'il les chante. Quoiqu'il en soit, et cet aspect est beaucoup plus important que le précédent, définir les *bertsolaris* actuels comme des ménestrels ou des troubadours pourrait nous faire croire qu'il s'agit là d'un phénomène ancien qui, pour une raison mystérieuse, aurait survécu jusqu'à ce jour comme il se pratiquait il y a des siècles. On parlerait là d'une relique, objet aussi admirable qu'inutile, à l'instar des premiers modèles aéronautiques ou machines à écrire du XIXe siècle.

Rien n'est plus éloigné de la réalité. Le bertsolarisme est aujourd'hui une réalité solide et d'un grand prestige social dans les zones géographiques où la langue basque est encore vivante. La vigueur du bertsolarisme dans la communauté bascophone se reflète clairement dans les études sociologiques réalisées¹. Si on veut vérifier la vitalité du bertsolarisme il suffit de constater l'une de ses manifestations les plus importantes : la finale du championnat national de *bertsolaris*, compétition qui a lieu tous les quatre ans. La finale de 2005 eut lieu en Biscaye, au BEC plus précisément (Bilbao Exhibition Centre). C'était la première fois que la finale ne se déroulait pas dans la province à la plus forte densité de locuteurs basques, en Guipuscoa ; un vrai défi, en somme. Le résultat fut spectaculaire. Environ 15 000 personnes assistèrent à l'événement (et de nombreuses autres personnes suivirent la finale à la radio ou à la télévision). La même chose se produisit pour l'édition de 2009 et les suivantes, qui ont toujours fait salle comble sur la même scène².

Dans cette société de l'image, où les rythmes sont de plus en plus vertigineux, l'attention toujours sollicitée et les messages plus courts, il n'est pas facile d'expliquer comment 15 000 personnes peuvent assister, pour le plaisir, pendant plus de six heures (le matin et l'après-midi, avec une pause déjeuner) à un spectacle qui est, par essence, l'antithèse du clip vidéo: les *bertsolaris* chantent *a capella*, debout, avec une posture solennelle, protégé derrière le micro, avec une scénographie réduite à une expression minimale, et le rythme du spectacle est marqué par le contenu des *bertsos*.

Pour se rendre compte du poids de ces données, il faut rappeler que le public potentiel que ce type de représentation peut attirer se réduit à la population bascophone, qui, selon les sources les plus fiables, constitue une communauté de 750 000 personnes³ (ou un peu plus si on compte les personnes qui ne parlent pas le basque mais qui le comprenne, mais on n'atteindrait en aucun cas le million de personnes).

L'impulsion du bertsolarisme actuel

Ezer ez egiatik urrunago. Bertsolaritza gaur egun errealtate sendo eta onarpen sozial handikoa da euskarak bizirik dirauen eremu geografikoetan. Bertsolaritzak gizarte euskaldunetan daukan sasoi bete hori argi eta garbi islatzen da egin diren azterketa soziologikoetan¹. Edo, bestela, bertsolaritzaren bizitasuna egiaztatu nahi duenak, ez dauka bere agerpen masiboenetako batean erreparatu besterik: Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala, lau urtean behin egiten den lehiaketa. 2005ean final hori Bizkaian egin zen, zehazkiago BECen (Bilbao Exhibition Centre). Finala, euskaldun dentsitate kopuru handiena daukan probintzian, Gipuzkoan, egiten ez zen lehenbiziko aldia zen, benetako erronka, alegia. Emaitza gogoangarria izan zen. 15.000 lagun izan ziren lehiaketaren lekuoa (eta beste hainbatek irratia eta telebista bidez ekitaldi guztia jarraitu zuten). Beste horrenbeste gertatu zen 2009ko edizioan, eta ondorengotan, betiere erabateko betealdiak izan baitira agertoki horretan bertan².

Irudiaren gizarte honetan, erritmoak gero eta zorabiagarriagoak, arreta guztiz lehiatua eta mezuak gero eta laburragoak diren honetan, nekez ulertzen da nola den posible 15.000 lagun sei ordu baino gehiagoan egotea (goiz eta arratsaldeko saioetan, tartean bazkaltzeko etenaldi batekin) funtsean bideo kliparen antitesia den emanaldi bat atseginez entzuten: bertsolariek *a capella* abesten dute, zutik, jarrera hieratikoan mikroen atzean parapetaturik, hutsaren hurrengo eszenografiarekin, eta emanaldiaren erritmoa bertsoen edukiak markatzentzela.


Datu hauek daukaten garrantzia jabetzeko, gogorarazi beharra dago mota honetako ekitaldi batek erakar dezakeen publiko bakarra, esan beharrik ere ez dago, populazio euskalduna dela, eta iturri fidagarrien arabera, komunitate hori 750 bat mila lagunek osatzen dugula³ (kopuru hori zertxobait gehitu daiteke, euskaraz mintzatzeko gai izan gabe ere, ulertu egiten duen jendea barne hartzen bada baina inolaz ere ez da milioira iristen).

Bertsolaritzak gaur egungo euskal gizartean daukan garrantzia ez da kasualitatearen emaitza; aitzitik, neurri handi batean behintzat, 1980ko hamarkadaren azken urteetatik aurrera berrikuntzaren alde egin zen apustuari zor zaio, bertsolari, bertsozale eta antolataile belaunaldi batek landutako estrategia soziokulturalaren barruan kokatzen den apustua, beren gidaritzapean hartu dutelarik bertsolaritza kolektibo gisa, Bertsozale Elkartearren inguruan antolatuz.

2. 2009ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala. BEC, Barakaldo.

2. Championnat national de bertsolaris du Pays basque, finale de 2009. BEC, Barakaldo (Biscaye).

L'importance du bertsolarisme dans la société basque actuelle n'est pas le fruit du hasard, mais est due, en grande partie, à l'engagement pris dès la fin des années 1980 de le renouveler. Cet engagement fut pris dans le cadre d'une stratégie socioculturelle mise en œuvre par une génération de *bertsolaris*, d'amateurs de bertsolarisme et d'organisateurs qui ont pris collectivement la barre du bertsolarisme, s'organisant autour de Bertsozale Elkartea (Association des amis du bertsolarisme).



Bertsozale Elkartea

Bertsozale Elkarteak, gaur egun milatik gora bazkide dauzka, horien artean ia bertsolari guztiak. 1987an sortu zen, *Bertsolari Elkartea* izenarekin eta bere lehenbiziko eginkizuna bertsolarien txapelketa antolatzea izan zen, ordura arte Euskaltzaindiak egiten zuena. 1995ean, birfundatze bat gertatu zen, besteak beste, izena aldatuz, eta harrezkero etengabe ari da hazten eta erantzukizun berriak bere gain hartzen.

2008az gero, Mintzola Fundazioan barne hartua, Elkarteak gestionatzen du Ahozkotasunaren Xenpelar Dokumentazio Zentroa; bertsolaritza eta ahozkotasunari buruzko ikerketa antolatzen, koordinatzen eta sustatzen du, eta beste hainbat materialen artean, urtero, bat-bateko bertso onenen antologia argitaratzen du; bertsolaritza artearen transmisio mugimendua koordinatzen du, bai bertso-eskoletan eta bai Hezkuntza arautuan; Euskal Telebistako *Hitzetik Hortzera* bertsolaritzari buruzko asteroko programa ekoizten eta koordinatzen du; Lanku enpresa elkartuaren bitarbez, bertso-saioetarako bertsolarien kontratazioa gestionatzen du... Gainera, Elkarteak presentzia aktiboa dauka Euskal Herriko bizitza sozial eta kulturaleko beste hainbat arlotan ere. Horrez gain, betiere harremanean dihardu ahozkotasunarekin zerikusirik daukaten nazioarteko elkartea eta erakunde guztiekin. Lan horren emaitzak dira, besteak beste, 2003ko maiatzaren 16 eta 17an Renon egin zen mintegia, bertan Jon Sarasuak, Andoni Egañak eta Joxerra Garziak bertsolaritzari buruzko beren liburuan⁴ aurkeztu zituzten ideiak kontrastatu ahal izan zituztelarik ahozkotasuneko aditu amerikarrekin; edo, Donostian, 2003ko azaroaren lehen astean egin zen Ahozko Inprobisazioari buruzko Kultura arteko Lehenbiziko Topaketa. Harreman horien ondorio da *Oral Tradition* aldizkari prestigiosuak, John Foley-ren⁵ zuzendaritzapean 2007an bertsolaritzari buruz plazaratu zuen ale monografikoa. 2016an inprobisazio abestuko bigarren nazioarteko topaketa antolatu zen Donostian, hiri hori (Wroclaw poloniar hiriarekin batera) kulturako europar hiriburu izendatua izanaren kariaz antolaturiko ekitaldien artean.

Elkarteak berak webgune bikain bat dauka (lau hizkuntzatan kontsulta daitekeena: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa)⁶. Bisitariak bertan aurkituko ditu, besteak beste, honako baliabide eta zerbitzuak: bertsolaritzaren jarduerari buruzko agenda zehatza, hainbat ekitaldiren bideoak, bertsolarien eta bertsolaritzarekin loturiko beste zenbait agenteren biografiak, inprobisazioaren hainbat alderdiri buruzko azterketak, argitalpenen katalogoa, biblioteka birtuala, bertsolaritzari buruzko datu-basea, edo bertsolariek erabili ohi dituzten ia 3.000 doinuak entzuteko aukera.

L'Association des amis du bertsolarisme

Bertsozale Elkartea compte actuellement plus d'un millier de membres, dont presque tous les *bertsolaris*. Créée en 1987 sous le nom de Bertsolari Elkartea (Association des *bertsolaris*), sa première mission fut d'organiser le championnat de *bertsolaris* jusqu'alors organisé par L'Académie de la Langue Basque - Euskaltzaindia. En 1995, on refonda l'association, et pris alors son nom actuel ; depuis, l'association n'a cessé de croître et de prendre à sa charge de nouvelles responsabilités.

Intégrée depuis 2008 à la Fondation Mintzola (Fabrique d'oralité), Bertsozale Elkartea gère le Centre de documentation de l'oralité Xenpelar ; organise, coordonne et encourage la recherche sur le bertsolarisme et l'oralité, et publie, parmi de nombreux autres matériaux, une anthologie annuelle des meilleurs *bertsos* improvisés ; coordonne le mouvement de transmission de l'art du bertsolarisme aussi bien dans les *Bertso-Eskolak* (écoles-ateliers de bertsolarisme) que dans l'enseignement formel ; produit et coordonne l'émission télévisé hebdomadaire *Hitzetik Hortzera* d'Euskal Telebista sur le bertsolarisme ; gère, à travers l'entreprise associée Lanku, les contrats des *bertsolaris* pour les différentes représentations... De plus, l'association est active dans d'autres domaines de la vie sociale et culturelle du Pays basque. Elle est également en contact permanent avec les toutes les associations et institutions internationales qui ont à voir avec l'oralité. Le fruit de ce travail est, par exemple, le séminaire ayant eu lieu à Reno les 16 et 17 mai 2003, au cours duquel Jon Sarasua, Andoni Egaña et Joxerra Garzia ont pu confronter leurs idées exposées dans leur livre sur le bertsolarisme⁴ avec des experts américains de l'oralité ; ou encore, la Première rencontre interculturelle d'improvisation orale de Saint-Sébastien en novembre 2003. De ces relations découle le numéro monographique sur le bertsolarisme publié en 2007 par le prestigieux magazine *Oral Tradition*, sous la direction de John Foley⁵. En 2016 eut lieu une deuxième rencontre internationale de chant improvisé, qui faisait partie des manifestations organisées à Saint-Sébastien dans le cadre de la capitale européenne de la culture, qui, cette année-là, lui revenait (en même temps que la ville polonaise de Wroclaw).

L'association a un excellent site Internet (consultable en quatre langues : en basque, en espagnol, en français et en anglais). On y trouve, entre autres, les ressources et le services suivants : un agenda fourni sur les différentes activités autour du bertsolarisme, des vidéos de diverses représentations, les biographies de bertsolari et d'autres acteurs du bertsolarisme, des recherches sur divers aspects de l'improvisation, un catalogue des publications, une bibliothèque virtuelle, une base de données sur le bertsolarisme ainsi que la possibilité d'accéder à près de 3 000 mélodies que les *bertsolaris* utilisent.



3

Bertsolaritza artearen agerpenak

3. *Hitzetik Hitzetik* telebista saioko (ETB) eta *bertsoa.eus* atariko hedapen-taldea. Amasa-Billabona, 2018.

Alegia ezagun batean, hiru itsuk, bakoitzak bere aldetik, elefantea zer eta nolakoa den jakin nahi dute. Lehenbizikoak, animaliaren hanka bat haztatu ondoren, dio elefantea zutabearen antzeko zera bat dela; bigarrenak, animaliaren tronpa haztatu du eta dio elefantea zutabea bezalakoa ez, baizik soka lodi-lodi bat bezalakoa dela; eta hirugarrenak, animaliaren belarri bat haztatzea egokitu baitzaio, ondorioztatu du elefantea ez dela ez zutabea bezalakoa eta ez soka bezalakoa, alfonbra zimur baten antzeko zera bat baizik.

Hazta daitekeen objektu bat hain era desberdin eta are kontrajarritan deskribatzen bada, azterzailearen ikus- (edo hazta-) puntuaren arabera, ez da harritzekoia izango antzeko zerbaite gertatzea bertsolaritza bezalako errealitate soziokultural konplexu baten definizioa ematerakoan.

Azalpen honetan, bertsolaritza genero, arte edo ofizio gisa aztertuko dugu batez ere⁶. Dena dela, hemen deskribatzen dugun errealitateak hain nabarmenak ez diren oinarriak dauzka, ezinbestekoak halere bertsolaritzaren biziraupenerako. Gaur egungo bertsolaritza mantentzen, elikatzen eta berritzen duten oinarri nagusiak honako hauek dira: bertsos-ekolak deritzen ikastegi-tailerrak; bertsolaritzaren irakaskuntza eskola arautuan; eta fenomeno honen presentzia medioetan, idatzietan zein ikus-entzunezkoetan eta Interneten.

Bertsolaritzaren beste alderdi hauek gehien eta ongien aztertu dituena Jon Sarasua⁷ izan da; beraz, haren lana gomendatuko diogu aipaturiko alderdi horiek sakonkiago aztertu nahi dituenari, izan ere, gu hemen bertsolaritza ikuskizun edo jarduera publiko gisa hartuta deskribatzen saiatuko gara.

Les démonstrations de l'art du bertsolarisme

Dans une fable bien connue, trois aveugles tentent, chacun de son côté, de découvrir ce qu'est un éléphant. Ainsi, le premier, qui a tâté une patte de l'animal affirme que l'éléphant ressemble à une colonne ; le deuxième, qui a palpé la trompe, soutient que l'éléphant est comme une corde épaisse ; et le troisième, qui a touché une oreille, conclut que l'éléphant n'est ni une colonne ni une corde, mais plutôt une sorte de tapis froncé.

Si un objet palpable est susceptible d'être décrit de manières aussi diverses et opposées selon le point de vue (ou le toucher), il en sera d'autant plus vrai au moment de définir une réalité socioculturelle aussi complexe que le bertsolarisme.

Dans le présent ouvrage, nous analyserons le bertsolarisme en tant genre, en tant qu'art ou en tant que métier⁸. Cependant, la réalité que nous décrivons ici a des bases moins manifestes, sans lesquelles elle ne serait pas viable. Les principales bases qui soutiennent, nourrissent et renouvellent le bertsolarisme actuel sont les écoles-ateliers de bertsolarisme (*bertso-eskolak*) ; l'enseignement du bertsolarisme à l'école formelle ; et la présence de ce phénomène dans les médias, tant dans la presse écrite que dans l'audiovisuel ou sur Internet.

Jon Sarasua et celui qui a le plus et le mieux étudié ces autres dimensions du bertsolarisme⁹. C'est donc ses travaux que nous conseillons à toute personne qui souhaiterait aller plus loin dans la compréhension de ces aspects, car ici, nous essayerons surtout de décrire l'activité du bertsolarisme en tant que représentation ou activité publique.

Même en ne considérant que cet aspect, le bertsolarisme actuel se matérialise à travers une grande variété de manifestations dont aucune n'explique, à elle seule, la réalité du phénomène. Les championnats nationaux cités plus haut, par exemple, sont importants pour se faire l'écho du mouvement ou même comme ressources économiques, mais ne sont que la partie la plus manifeste et la plus visible du phénomène du bertsolarisme.

La performance ou la représentation des *bertsolaris* (*bertso-saioa*) peut avoir lieu dans une enceinte fermée, grande ou petite, dans un théâtre, dans un fronton ou autour de la table d'un restaurant, mais également à l'extérieur, dans le kiosque d'une place, et même de balcon à balcon.

Depuis la dernière décennie du XXe siècle, on organise environ 1500 représentations par an. Parmi les *bertsolaris* les plus demandés se trouvent ceux de différentes générations, ceux de moins de 20 ans comme ceux de plus 70 ans. La présence des femmes *bertsolaris* dans le bertsolarisme de haut niveau est un phénomène maintenant établi, et qui date d'avant le championnat de 2009 remporté par Maialen Lujanbio, la seule femme à avoir participé à cette finale, et la première de l'histoire à remporter le championnat national. Parmi les 1 500 représentations annuelles, il en existe de différents types et de différents formats. Voici les plus courantes :

Alderdi hori bakarrik kontuan hartuta ere, gaur egungo bertsolaritzan agerpen aniztasun ugaria sumatzen da, eta horietako ezeinek, bakarka hartuta, ezin du fenomenoaren errealtitate guztia azaldu. Aipatu ditugun Txapelketa Nagusia, esate baterako, mugimenduaren oihartzun gisa, edo baliabide ekonomikoaren iturri gisa, eduki dezaketen garrantzi guztiarekin, ez dira bertsolaritza-fenomenoaren alderdi nabarmen eta ikusgarriena besterik.

Bertsolarien jarduera (bertso-saioa) egin daiteke areto itxi batean, zabala zein txikia, antzoki batean, pilotaleku batean, jatetxe bateko mahai baten inguruan, baina bai eta aire zabalean ere, plaza bateko kioskoan, edota kalean balkoitik balkoira.

XX. mendeko azken hamarkadaz gero, batez beste, urtean 1.500 bat bertso-saio antolatzen dira. Gehien eskatzen diren bertsolarien artean, belaunaldi guztiak daude, 20 urtetik beherakoak zein 70 urtetik gorakoak. Goren mailako bertsolaritzan emakumearen presentzia azken urte hauetan errotu den fenomenoa dugu, Maialen Lujanbiok 2009ko Txapelketa Nagusia irabazi baino lehenagokoa. Edonola ere, Lujanbio final harten parte hartu zuen emakume bakarra izan zen eta historia guztian txapela lortu duen lehenbiziko emakumea da. Urteko 1.500 bertso-ekitaldi horien artean, mota eta formatu askotakoak daude. Hona hemen ohikoenetako batzuk:

BERTSO-JAIALDI EDO ERREZITALAK

4. Alaitz Rekondo
gai-jartzailea eta Fredi
Paia, Ane Labaka
eta Sebastian Lizaso
bertsolariak. Berto
Eguna 2015. Donostia.

Aurretiaz iragarritako jardunaldia izaten da, eta bertan parte hartzen duten bertsolarien kopurua, ia beti, lautik zortzira bitartekoa. Areto itxietan egiten da (zine, antzoki, pilotaleku...), eta normalean ordubete eta erditik bi ordura iraun ohi dute bertso-saio hauek.

Mota honetako jardunaldietan, bertsolariekin batera, funtsezko beste pertsonaia bat agertzen da: gai-jartzailea (sarritan emakumea izan ohi dena); berau arduratzen da bertsolari bakoitzari dagozkion gaiak eta ariketak proposatzeaz, aurretiaz prestatua duen gidoi baten arabera.

Jardunaldi honetan zehar, bertsolarien hainbat bertsoaldi egiten dituzte, bikoteka, hirunaka zein bakarka. Gai-jartzaileari dagokio bertsoaldi bakoitzean zein bertsolarik jardun behar duten erabakitzea, zein izango den formatua, eta zer gairi buruz aritu behar duten. Asmatu beharreko bertsoen kopuru zehatza txapelketetan bakarrik ezartzen bada ere, mota honetako bertso-jaialdien, normalena, bertsolari bakoitzak aldko hiru bertso kantatzea izaten da. Gai-jartzaileak gaia formulatzentzu duen bertsolariak kantatzen hasi arte pasatzen duen denbora aldatu egiten da jardueraren seriotasunaren arabera. Txapelketetan minuto erditik gorako isilaldiak onartzen dira; hain formalak ez diren saioetan, ordea, guztiz desegokiak lirateke horrenbesteko isilaldiak.

TXAPELKETAK ETA SARIKETAK

Bertso-jaialdien adierazpen berezietako bat bertsolari-txapelketak eta -sarietak dira; berauetan lehiakideek bertsotan jarduten dute epaimahai baten aurrean, zeinak bertso bakoitza ebaluatzen eta puntuatzen duen bertso baten amaieratik hurrengoaren hasierara dagoen tarte laburrean. Bana daitezkeen sarietatik aparte, irabazlearen bereizgarria betiere

4. La modérateur-meneur de joute Alaitz Rekondo et les *bertsolaris* Fredi Paia, Ane Labaka et Sebastian Lizaso. Journée du bertsos 2015. Saint-Sébastien (Guipuscoa).

FESTIVALS OU RÉCITALS DE 'BERTSOS'

Il s'agit d'un événement annoncé au préalable, auquel participent un certain nombre de *bertsolaris*, généralement entre quatre et huit. Ces représentations se déroulent habituellement dans des salles fermées (cinéma, théâtre...), et le plus souvent durent entre une heure et demie et deux heures.

Dans ce genre d'événements, outre les *bertsolaris*, une autre figure clé apparaît : le modérateur-meneur de joute (qui est souvent une femme), qui propose aux *bertsolaris* les thèmes et exercices correspondants, en fonction d'un scénario préalablement préparé.

Au cours de cette représentation, les *bertsolaris* exécutent divers passages (*bertsoaldiak*), en duo, en trio ou en solo. C'est le modérateur-meneur de joute qui décide quel *bertsolari* participera lors de chaque intervention, dans quel format, et quel sera le thème sur lequel il devra improviser. Bien que le nombre de *bertsos* à improviser soit imposé seulement lors des championnats, le plus courant dans ce type de représentation est que chaque *bertsolari* chante trois *bertsos* par intervention. Le temps que peut prendre un *bertsolari* pour se mettre à chanter à partir du moment où le modérateur formule le sujet varie selon le sérieux de la représentation. Dans les championnats, des silences de plus d'une demi-minute sont tolérés, ce qui dans une performance moins formelle serait vraiment inapproprié.



txapela izaten da. Adierazi dugun bezala, bertsolari-lehiaketa guzietan garrantzitsuena Euskal Herriko Txapelketa Nagusia da, lau urtean behin egiten dena, baina hortik aparte probintzia bakoitzak egiten du bere txapelketa, eta badira lehiaketa formatua duten beste norgehiagoka batzuk ere (aur-mailakoak, eskolartekoak, herri-mailakoak eta eskualde-mailakoak, besteaak beste)⁸.

Txapelketetan, jardueren diseinuaz eta garatu beharreko gaien formulazioaz talde espezializatua bat arduratzen da; ez da gai-jartzailaren eginkizuna, kasu hauetan aurkezpenak egitera mugatzen baita.

Ez da erraza bertsolari txapelketa nagusien historia osatzea, antolaketan, mailan eta oihartzunean alde handiak baitaude urte batzuetatik beste batzuetara. Bertsolaritzaren historia azaltzean, txapelketa batzuk sakonkiago aztertuko baditugu ere, laburpen gisa gaur egungo lau urteroko txapelketarekin homologa daitezkeen eta homologatu ohi diren txapelketakoren bat irabazi duten bertsolarien zerrenda osatu dugu (ikus 1. Taula. Eranskinak, 90. or.).

BERTSO-SAIO LIBREAK

Gai-jartzailarekin eginiko bertso-jaialdiaren formatua nahiko berria da oraindik, eta segur aski txapelketatik eratorria izango da. Badirudi bertsosaioen formatu zaharra eta desafioa dela: bi bertsolariak ordua eta ordua jarduten zuten ika-mikan bietako bat besteari nagusitzen zitzaison arte.

Bertso-jaialdi eta errezaletan ez bezala, saio libreetan bertsolariak erabakitzentz dute zein formatu erabili eta zeri buruz aritu beren jardueran. Bertsolari kopurua jaialditan baino txikiagoa izaten da (normalean 2 edo 3 baino ez). Ospatzen edo omentzen den gertaera zein pertsonari buruzko aipamenak nagusitzen dira, eta bertsolariak luzaroago jardun dezakete jorratzen den gai bakoitzaren gainean. Gai batetik besterako igarotzea pixkanaka egiten da.

Bi bertsolarien arteko eztabaidea erako saioetan ere sumatzen da antzinako desafio formatuaren aztarna, baina, dena dela, hori badirudi ohikoagoa dela beste kultura batzuetako inprobisazioan (repentista kubatarrak edo rageifeiro galegoak, adibidez).

Dena dela, Maximiano Traperok oso ongi adierazi duenez, inprobisazioaren beste agerpen poetikoago horietatik bereiziz, bertsolaria gehiago zentratzen da alderdi argudiatzaile eta dialektikoan⁹.

BAZKAL-AFALONDOKO SAIOAK

Askotan, bertsosaiok bazkari edo afari baten ondoren izaten dira, eta horietarako normalean aurretiaz izena eman behar izaten da.

Bazkal-afalondoko bertsosai hauetako batzuetan ere izaten da gai-jartzalea; horrelakoetan, beraz, bertso-jaialdien antzeko gertatzen dira. Kasu horietan hiruzpalau bertsolarik parte hartu ohi dute.

Gai-jartzailerik ez dagoelean, saio hauek jarduera librekoak izaten dira eta ohikoena bizpahiru bertsolarik parte hartzea da.

CHAMPIONNATS ET CONCOURS

Une des expressions particulière des festivals de *bertsos* sont les championnats et les concours de *bertsolaris*. Les improvisateurs s'y affrontent devant un jury qui évalue et note chaque *bertso* dans le laps de temps qu'il y a entre la fin d'un *bertso* et le début du suivant. Indépendamment des prix qui peuvent être distribués, la distinction que reçoit le vainqueur est toujours la *txapela*. Comme indiqué précédemment, la compétition la plus importante est le Championnat national des *bertsolaris*, qui a lieu tous les quatre ans, mais chaque province a son propre championnat, et il existe également d'autres types de compétitions (pour enfants, interscolaires, locales, régionales, etc.)⁸.

Dans les championnats, les représentations sont conçues par un groupe spécialisé celui-ci établit également les sujets à traiter ; la fonction du modérateur se limite dans ces cas qu'au travail de présentation.

Retracer l'historique des championnats nationaux de *bertsolaris* n'est pas chose aisée, car leur organisation, leur niveau et leur impact sont très différents d'une édition à l'autre. Bien qu'en présentant l'histoire du bertsolarisme nous analyserons certains championnats plus en profondeur, nous proposons ci-dessous et en guise de résumé, la liste des *bertsolaris* qui ont réussi à remporter l'un des championnats, à laquelle s'ajoute la liste des championnats quadriennaux les plus récents (voir Tableau 1. Annexes p. 90).

REPRÉSENTATION LIBRE DE 'BERTSOS'

Le format de festival ou de récital avec modérateur est relativement nouveau et découle probablement des championnats. Il semblerait que le format le plus ancien des représentations de *bertsos* soit le défi : deux *bertsolaris* se disputaient librement pendant des heures, jusqu'à ce que l'un l'emporte sur l'autre.

Contrairement à ce qui se passe dans les récitals ou les festivals, dans les représentations libres ce sont les *bertsolaris* eux-mêmes qui décident des formats et des thèmes qu'ils utiliseront dans leur performance. Le nombre de *bertsolaris* est généralement inférieur à celui des festivals (le plus souvent seulement deux ou trois *bertsolaris*). Les références à la personne ou à la situation dans laquelle la représentation se déroule prédominent et les *bertsolaris* peuvent consacrer davantage de temps à chaque sujet traité. La transition entre les différents thèmes se fait progressivement.

Dans les représentations en mode de débat entre les deux *bertsolaris*, on peut aussi percevoir une empreinte de l'ancien format de défi, qui semble être plus courant dans l'art de l'improvisation d'autres cultures (les repentistes cubains ou les rageifeiros galiciens, par exemple).

Quoiqu'il en soit, comme l'a très bien expliqué Maximiano Trapero, contrairement au caractère plus poétique de ces autres manifestations de l'improvisation, le bertsolarisme met davantage l'accent sur l'aspect argumentatif et dialectique⁹.

OSPAKIZUNETAN TXERTATURIKO BERTSO-SAIOAK

Oso ohikoa da bertsolariak eramatea edozein motatako ospakizunetara: ezkontza, hileta, inaugurazio, ekitaldi politiko, mota guztietako kongresu, omenaldi, azken agur edo agur-festa, kirol-gertaera, etab. Ekitaldi hauetan bertsosaiok jarduera osagarria baizik ez dira eta bertsolaritzaren eta bertsolarien prestigio soziala nabarmentzen dute.

BERTSOGINTZA FORMATU BERRIAK

5. Iñaki Viñaspre, Saioa Alkaiza, Paula Amilburu eta Amets Arzallus. Gasteizko jaietako bertsosaioa, 2019.

Azkenik, esan beharra dago bertsogintzan hainbat formatu berri sortu direla azken urte hauetan. Horien artean, aipatzeko da, besteak beste, bi bertsolari edo gehiagok antzerki moduko bat inprobisatzen dutenekoa, gidariak proposaturiko gidoi batetik abiaturik; gidoi hori egokitutegitzen da bertsolariak antzerkia garatuz doazen heinean. Era berean, beste jarduera mota batzuk ere probatu dira: monografikoak (umore beltza eta erotismoa, kasu); experimentalak (bertsolari bakar batekin, esate baterako, elementu poetikoak, dantza, jazz eta komikia txertatuz).



5

JOUTES D'APRÈS REPAS

Souvent, les représentations des *bertsolaris* ont lieu après un déjeuner ou un dîner, ou il faut s'inscrire à l'avance.

Dans certaines de ces performances d'après repas il y a un modérateur-meneur de joute, et peuvent donc ressembler à des représentations. Ce sont généralement trois ou quatre *bertsolaris* qui interviennent.

Lorsqu'il n'y a pas de modérateur, ces joutes sont de format libre, et le plus souvent, ce sont deux ou trois *bertsolaris* qui y participent.

DES PRÉSENTATIONS AU SEIN D'AUTRES ÉVÉNEMENTS

5. Iñaki Viñaspre, Saioa Alkaiza, Paula Amilburu et Amets Arzallus. Représentation lors des fêtes de Vitoria-Gasteiz (Alava), 2019.

Il est très courant de faire intervenir les *bertsolaris* dans tout type d'événement : mariages, funérailles, vernissages, actes politiques, congrès de toutes sortes, hommages, adieux, événements sportifs, etc. Dans ces événements, les interventions des *bertsolaris* sont seulement complémentaires, et illustrent le prestige social du bertsolarisme et des *bertsolaris* eux-mêmes.

DE NOUVEAUX FORMATS D'IMPROVISATION

Enfin, il faut dire que ces dernières années, de nombreux nouveaux formats sont vu le jour. Entre autres, se démarque l'intrigue bertsolaristique, dans laquelle deux ou plusieurs *bertsolaris* improvisent sur un scénario théâtral que le chef d'orchestre propose, et qui est modifié au fur et à mesure que les *bertsolaris* développent le scénario. On a également tenté d'autres types de performances : monographiques (humour noir, érotisme, etc.) ; expérimentales (avec un seul *bertsolari*, intégrant des éléments poétiques, danse, jazz, bande dessinée...).

Bertsolari ofizioa

GAIAK: ZER ABESTEN DU BERTSOLARIAK?

Bertsolariak bere improbisazioan poesia eta txantxa nahastuz, hainbat arlotako informazioa eskaintzen du. Bertsolariaren ekarpena, hain zuzen, maila desberdinaren nahasketa horretan datza: gizarte-albisteak, politika, sexu-kontuak, kultura, diharduten herriko gorabeherak eta entzuleriaren egoerari buruzko aipamenak nahastuz, eta hori guztia beste bertsolarietan esandakoaren aurkako zirkadez zipriztinduta.

MODUAK: NOLA INPROBISATZEN DU BERTSOLARIAK?

6. Miren Amuriza eta Joxe Agirre kantuan. Ereñotzuko bertso-jaialdia, 2010.

Bertsolariak betiere doinu jakin batean bermatuz eta *a capella* abestuz improbisatzen du¹⁰. Doinuak ezartzen du eredu metrikoak, alegia, silaba kopurua; halere, bertsolariak ez ditu zenbatzen silabak, hautaturiko doinuaren barruan egokiaraztea besterik ez du egiten.

Erimari dagokionez, hori ere doinuak markatzen du, eta betiere errima kontsonante edo osoa izaten da. Joanito Dorronsorok¹¹ 3.000 doinu inguru desberdin zentsatu, katalogatu eta komentatu ditu. Horietako gehienak euskazarako herri-abestietatik hartuak dira, halere, gero eta sarriago, bertsolariekin *ad hoc* doinuak enkargatzenten dizkiete beren konfiantzako musikariei, edo eurak arduratzenten dira melodia ezagunak aukeratzeaz eta beren premietara egokitzeaz.

Bertsogintzan gehien erabiltzen diren estrofak zortziko deritzenak dira: zortziko txikia eta zortziko handia. Zortziko txikiak 13 silabako lau puntu edo segmentu ditu, eta horietako bakoitzeko azken hitzak markaturiko errima osatu behar du betiere. Tradizioz, Hego Euskal Herrian behintzat, puntu bakoitza hurrenez hurren 7 eta 6 silabako bi lerrotan idazten da, hortik zortziko izena. Osaera berbera aurkezten du zortziko handiak; desberdintasun bakarra, kasu honetan puntu bakoitzak 18 silaba edukitzea, hurrenez hurren 10 eta 8 silabako bi lerrotan idazten direnak (ikus 2. Taula. Eranskinak, 90. or.).

Zortziko txikiari puntu bat gehituz (bi lerro, hamahiru silaba, dagokion errimarekin), hamarreko txikia lortzen da, eta beste horrenbeste gertatzen da zortziko handiarekin. Euskal herri-abestietako asko eskema metriko hauetara egokitzen dira. Beste estrofa mota asko daude baina, oro har, bertsogintzan erabiltzen den oin errimatuen kopurua oso gutxitan izaten da bederatzitik gorakoa¹². Bestalde, oso ezohikoak dira errima mota bat baino gehiago konbinatzen direneko estrofak (adibidez, dezima improbisatuaren gertatzen dena).

Normalean, bertsolariak, proposatu den gaia (edo bakarka ari ez den kasuan, kideak bota berri duen bertsoa) entzun ondoren, ezer baino lehen, bere bertsoaren akabera moldatzen du (azken puntuak, bere errimarekin), formulazioa zainduz eta hautaturiko doinuaren egitura metrikora egokituz. Hortik abiaturik, eta menu informatiko bat balitz bezala, errima osatzeko balia ditzakeen hitzak bilatzen ditu eta gidoi moduko bat eraikitzen du, pentsatua daukan akaberarekin ongi etorriko dena. Eginkizun horretan joaten zaizkio kantatzen hasi aurretik dauzkan segundo horiek. Bertsoaren gainerakoa, beraz, abestu ahala asmatuko du¹³.



La fonction de 'bertsolari'

LES SUJETS : QUE CHANTE LE 'BERTSOLARI' ?

Le *bertsolari*, en associant dans son improvisation poésie et humour, traite des informations de différents domaines. La fonction du *bertsolari* est précisément de mélanger différents niveaux : le traitement des thèmes d'actualités sociales, politiques, sexuels, culturels, locaux – associés aux références du public local –, le tout éclaboussé d'allusions personnelles et en contestation aux autres bertsolaris.

LA PRATIQUE : COMMENT IMPROVISE LE 'BERTSOLARI' ?

Le *bertsolari* improvise toujours en s'appuyant sur une mélodie et en chantant *a capella*¹⁰. C'est la mélodie qui définit la métrique. Celle-ci est syllabique, bien que le *bertsolari* ne compte pas les syllabes, il les intègre seulement dans la mélodie choisie.

Quant à la rime, elle est également indiquée par la mélodie, et est toujours consonante. Joanito Dorronsoro¹¹ a enregistré, catalogué et commenté près de 3 000 mélodies. La plupart d'entre elles proviennent de chansons populaires basques, bien que, de plus en plus fréquemment, les *bertsolaris* commandent des mélodies *ad hoc* à des musiciens de confiance, ou adaptent eux-mêmes des mélodies connues selon leurs convenances.

Le type de strophe le plus courant dans l'improvisation est celui appelé *zortziko* : le *zortziko* mineur, qui se compose de quatre segments de 13 syllabes, chacun se terminant par une rime. Traditionnellement, au Pays basque sud en tout cas, chaque point est transcrit en deux lignes ou vers de 7 et 6 syllabes, d'où le nom de *zortziko* (huit en basque). Le



7

1980ko hamarkadara arte, oso gutxitan erabiltzen ziren lau errimatik gorako bertsoak. Sei errima eta gehiagoko bertsoen ugaritza gaur egungo bertsolaritzaren ezaugarrietako bat da eta, zalantzak gabe, bertsolaritza garatzen deneko inguruabar sozio-politiko-kulturaletan gertatu den aldaketa sakonari zor zaio.

BERTSOLARIA, EMOZIOEN KUDEATZAILE

XX. mendeko azken urteetan eta XXI.eko aurrenekoetan paradigma aldaketa bat gertatu zen bertsolaritza inprobisatuaren ikerketan. Ordura arte, bertsolaritzari buruzko ikerketa guztieta gauza jakintzat ematen zen bertsolaritza literaturaren azpigenero bat zela, ahozko literaturaren barruan kokatua. Ia ikerlan guztiekin poetika idatzien marko teorikotik aztertzen zuten bat-bateko bertsolaritzaren fenomenoa, baina horrela ezin azaldu zitekeen bat-bateko bertsoen gehiengoa.

Kontuan eduki behar da, 1940ra arte bertsolari gehienak baserritar girok zetozela eta prestakuntza akademiko urria edo batere ez zeukatela; gaur egun gehienak unibertsitarioak dira. Bertsolarien prestakuntza intelektuala areagotuz doan heinean, berauek garatzen duten arteari buruz teorizatzen hasi dira, eta zalantzan jartzen dituzte orain arte erabili izan diren parametroak, gehienak kritika literariotik ekarriak.

Gogoeta horietatik abiaturik, bat-bateko bertsolaritzaren azterketarako marko teoriko berri baten formulaziora iritsi dira, azken urte hauetan onarpene-maila handia irabazi duena, hainbat aplikazio eremutarako baliagarria dela ikusi baita¹⁴.

Marko teoriko berriaren funtsezkoena zera da, bertsolaritza genero erretorikotzat hartzen duela. Erretorika da, beraz, marko teoriko berriaren

7. Ikus-entzuleak
bertso-saiolan
adi. Hondarribiko
Santiago Plaza, 2019.

7. Public écoutant attentivement les *bertsolaris*. Place Santiago, Fontarrabie (Guipuscoa), 2019.

zortziko majeur a la même configuration, mais chaque point se compose de 18 syllabes, écrites en deux lignes de 10 et 8 syllabes (voir le Tableau 2. Annexes, p. 90).

En ajoutant un point au *zortziko* mineur (deux lignes, treize syllabes, avec la rime correspondante), on obtient le *hamarreko* mineur, et il en va de même pour le *zortziko* majeur. Beaucoup de chansons populaires basques correspondent à ces schémas métriques. Il existe de nombreux autres types de strophe, mais en général, le nombre de pieds rimés utilisés en improvisation est rarement supérieur à neuf¹². D'autre part, les strophes dans lesquelles plus d'un type de rime se mélangent sont très rares (contrairement à ce qui se passe, par exemple, dans le dizain improvisé).

Habituellement, le *bertsolari*, après avoir écouté le thème proposé (ou le *bertso* que son partenaire vient de chanter si la représentation n'est pas solo), réfléchit généralement d'abord à la fin de son *bertso* (le dernier point, avec la rime correspondante), en soignant sa formulation et en l'adaptant à la structure métrique de la mélodie choisie. À partir de là, comme s'il s'agissait d'un menu informatique, il cherche les mots qu'il pourrait utiliser comme rime, et établit un scénario qui visera à renforcer la fin qu'il a imaginée. Les quelques secondes dont il dispose avant de commencer à chanter sont consacrées à cette tâche. Il développera le reste du *bertso* au fur et à mesure de la chanson¹³.

Avant les années 1980, on utilisait très peu les strophes de plus de quatre rimes. L'accroissement des strophes de six rimes est une caractéristique du bertsolarisme actuel, et est sans aucun doute du au changement radical supporté depuis par les circonstances socio-politico-culturelles dans lesquelles le bertsolarisme se développe.

LE 'BERTSOLARI', GESTIONNAIRE DES ÉMOTIONS

À la fin du XXe siècle et au début du XXIe siècle, s'est opéré un changement de paradigme dans l'analyse du bertsolarisme improvisé. Jusqu'alors, toutes les recherches sur le bertsolarisme tenaient pour acquis qu'il s'agissait d'un sous-genre de la littérature au sein de la littérature orale. Quasiment tous les travaux de recherches abordaient le phénomène du bertsolarisme improvisé à partir du cadre théorique de la poétique écrite, mais la grande majorité des *bertsos* improvisés ne pouvaient être ainsi expliqués.

Il faut tenir compte du fait que jusqu'à 1940, la plupart des *bertsolaris* provenaient de zones rurales et avaient peu ou pas de formation académique ; de nos jours, la plupart sont des universitaires. À mesure que la formation intellectuelle des *bertsolaris* s'est renforcée, ceux-ci se sont mis à théoriser sur leur art, en remettant en question les paramètres utilisés jusque là, la plupart importés de la critique littéraire.

À partir de ces réflexions, on arrive à un nouveau cadre théorique pour l'analyse du bertsolarisme improvisé qui, ces dernières années, a obtenu une reconnaissance, car il s'est avéré efficace dans divers domaines d'application¹⁴.

L'essentiel du nouveau cadre théorique est que le bertsolarisme est considéré comme un genre rhétorique. La rhétorique est donc le principal support du nouveau cadre théorique, support dans lequel, bien sûr, sont intégrés les concepts et les outils d'analyse des plus grands chercheurs en oralité¹⁵.

zutabe nagusia, eta bertan integratzen dira, noski, ahozkotasunaren ikertzaile garrantzitsuenen analisi tresnak eta kontzeptuak¹⁵.

Bertsolaritzaren genero erretorikotzat hartzeak berekin dakin, besteak beste, sortu den testuaren erlatibizazioa, betiere, bertsolariak kasu bakoitzean inprobisatzen duen testuinguruaren eta egoeraren arabera aztertu beharko baita.

Izan ere, bat-bateko bertsolariaren helburua ez da balio literario handiko testuak sortzea, entzuleengan emozioak eragitea baizik. Bertsoak betiere testua behar du, eta, aurrerago ikusiko dugunez, gaur egungo bertsolarien sarritan testu bikainak sortzen dituzte. Halere, bat-bateko bertsoaren balioa testuaren kalitatera murriztea bat-bateko bertsolaritzaren funtsari iruzur egitea litzateke.

Liburu honen hasieran, bertsolaria publiko baten aurrean bertsoak inprobisatzen dituena dela esan badugu ere, egokiago litzateke bertsolaria emozioen kudeatzaile dela esatea. Emozioak sortzea eta eragitea, horixe da bertsolariaren helburu nagusia¹⁶.

Batzuetan zaila izango da testu on bat gabe entzuleak hunkitzea (adibidez, egoera formaletan, edo entzuleria ugaria eta heterogeneoa denean); beste batzuetan, ordea, nahikoa izango da inguruneko elementu bat aipatzea, pertsonaia miretsi bat edo balio partekatu bat gogoraraztea, emozioak eztanda egiteko. Era berean, hautaturiko doinua eta kantatzeko modua ere bertsolariak kudeatzen jakin beharreko elementuak dira, bere helburua lortuko badu.

8. Maddalen Arzallus eta Andoni Egaña herriko plazako bertso-saiuan. Segura, 2017.

9. Hainbat bertsolari Heineken Jazzaldiaaren barruan egindako Bertso-jazz saio berezian. Donostia, 2016.

10. Bertsolariak kantatzeko zain, 2018ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean. Bilbo, 2018.



8. Maddalen Arzallus et Andoni Egaña lors d'une représentation sur la place publique. Segura (Guipuscoa), 2017.

9. Divers bertsolaris à la représentation spéciale Bertso-jazz lors du Heineken Jazzaldia. Saint-Sébastien (Guipuscoa), 2016.


10. Bertsolaris attendant de chanter à la finale du Championnat de bertsolaris de Biscaye. Bilbao Arena, Bilbao (Biscaye), 2018.

Considérer le bertsolarisme comme genre rhétorique suppose, entre autres, de relativiser le texte créé, qui doit toujours être considéré en fonction du contexte et de la situation dans laquelle le *bertsolari* improvise.

En effet, l'objectif du *bertsolari* improvisateur n'est pas de produire des textes de haut niveau littéraire, mais de provoquer des émotions chez les auditeurs. Tout *bertso* a besoin d'un texte, et comme nous le verrons plus bas, les *bertsolaris* d'aujourd'hui produisent souvent d'excellents textes. Cependant, réduire le *bertso* improvisé à un simple texte revient à dénaturer l'essence du bertsolarisme improvisé.

Bien qu'au début de ce livre nous ayons avancé que le *bertsolari* est celui qui improvise des *bertsos* devant un public, il serait plus juste de dire que le *bertsolari* est un gestionnaire d'émotions. Créer et produire des émotions, tel est l'objectif principal du *bertsolari*¹⁶.

Parfois, il sera difficile de toucher le public sans un bon texte (par exemple, dans des situations formelles ou lorsque le public est divers et hétérogène), mais d'autres fois, il suffira de mentionner un élément environnant, un personnage admiré ou de rappeler une valeur partagée pour que l'émotion fasse surface. De même, la mélodie choisie et la façon de chanter sont également des éléments que le *bertsolari* doit savoir gérer afin d'atteindre son objectif.



Bertsolaritzaren historia laburra

Bertsolaritzaren inguruan dagoen mito baten arabera, haren jatorria antzinate zaharrenean bilatu behar da, eta beste muturreko kontramitoak dioenez, berriz, bertsolaritza nazionalismoaren *asmazio* berri bat besterik ez da; Koldo Mitxelena erdibidean kokatzen da, eta horixe dirudi arrazoizkoena:

«Tradizioa (bertsolariena) zaharra da, Garibayk aipatzen dituen XV. mendeko dama inprobisatzaleen garaikoa gutxienez»¹⁷.

Joxe Azurmendik¹⁸, bere aldetik, Bizkaiko Foru Zaharrean aurkituriko bi aipamen dakartza (1452an paperean idatziak). Kontuan hartzekoak dira, zalantzak gabe, bertsolaritzari buruzko aipu zaharrenak direlako; froga ukaezina, beraz, 1452an jadanik bertsolaritza gauza arrunta eta sustraitua zela, espresuki debekatua izatea merezi izateko. Foruak bi mota aipatzen ditu. Alde batetik, erostari edo hiletariena, oso ezaguna beste kultura batzuetan ere. Bestalde, interesgarriagoa da emakumeek garatu zuten genero satirikoa eta Foruak «profazadas» deritzona. Dirudienez, azoka eta beste zenbait ospakizunetan garatzen zuten beren inprobisazioaren artea, eta, segur aski, hauek har daitezke gaur egungo bertsolarien aitzindaritzat.

Dena dela, iraganeko emakume inprobisatzalea haien kasuan egin dezakegun gauza bakarra behinola existitu zirela baieztago da. Aintzat hartzeko moduko bertsolaritzaren corpus bat aurkitu ahal izateko, XVIII. mendearen amaieraraino joan beharra dago. XIX. mendea hobeto dokumentatua dago, bai izenei eta datu biografikoei dagokienez eta bai kontserbaturiko piezei dagokienez ere. Fenomeno aipagarri bat eta oraingoaz azalpenik aurkitu ez zaiona da nola eta zergatik, XV. mendetik XIX. mendera dagoen tarte horretan, desagertu zen emakumea bertsolaritzatik, jarduera horretako subjektu aktibo gisa behintzat.

Halere, daukagun dokumentazioaren arabera garai hartatik kontserbatu diren bertsos gehienak bertsos jarriak dira, paperean idatziak alegia eta ez inprobisatuak. Badakigu, erreferentzia batzuei esker, bertsos haiek idazten zituzten bertsolarietan inprobisatzen ere jardun ohi zutela, baina kontserbatzen den bertsos inprobisatuen kopurua oso urria da, eta ezer gutxi esan daiteke garai hartako bertsos inprobisatuaren ezaugarriei buruz (sortze-prozesua, zabalkundea, kontsumoa).

Lehenagoko aipamenen bat ere badagoen arren, bat-bateko bertsogintzaren lehenbiziko erreferentzia dokumentatu eta sinesgarria XIX. mendearen hasierakoa da, zehazki 1802koa, eta hor ikusten da bertsos-saioen ohiko formatua desafioa izaten zela, ia beti bi bertsolariren arteko eta orduak eta orduak iraun zezakeela. Pablo Gorosabel (1803-1868) kronistak dioenez, desafio horietako batzuetan, Tolosako plazan egin zenean, esate baterako, 4.000 entzule inguru bildu omen ziren. Horrek erakusten du zer-nolako zaletasuna zegoen garai hartan bat-bateko bertsolaritzarako. Dena dela, ezer gutxi esan dezakegu garai hartako bertsolaritzari buruz, oso errrotua zegoela adieraztea besterik.

Bertsolari inprobisatzaleen bertsosak sortzeko moduak eta azken produktua aztertzeko orduan, esan beharra dago 1960ko hamarkadara arte ez dagoela behar besteko garrantzia daukan bat-bateko bertsoen corpusik. Aipatu datara arte daukaguna bertsos-zati eta -pasadizoien bilduma bat besterik ez da; beraz, ez dago materialik ikerketa fidagarririk egin ahal izateko. Bertsolaritzako *klasikotzat* hartzen direnak (Etxahun,

11. Aitor Mendiluze
2013ko Bertsolari
Txapelketa Nagusian
bertsoa pentsatu
bitartean, BEC,
Barakaldo.

11. Aitor Mendiluze réfléchissant avant de chanter son *bertso* lors du Championnat national de *bertsolaris* du Pays basque. BEC, Barakaldo (Biscaye).

Brève histoire du bertsolarisme

Un certain mythe attribue au bertsolarisme des origines ancestrales tandis qu'un contre-mythe tente de le réduire à une « invention » nouvelle du nationalisme. Koldo Mitxelena se place à mi-chemin entre les deux mythes, et c'est ce qui semble le plus probable :

« La tradition [des *bertsolaris*] est ancienne et remonte au moins aux dames improvisatrices du XVe siècle évoquées par Garibay. »¹⁷

Joxe Azurmendi¹⁸, pour sa part, évoque deux citations du Vieux For de Biscaye (écrites sur papier en 1452), dont ont doit tenir compte, car elles sont sans aucun doute les plus anciennes évocations du bertsolarisme, et sont la preuve irréfutable que, dès 1452, le bertsolarisme, ou certaines de ses manifestations, étaient quelque chose de si commun et enraciné qu'il était possible d'interdire. Le for mentionne deux types de bertsolarisme. D'une part, celle des pleureuses, très connue dans d'autres cultures. D'autre part, le genre satirique développé par les femmes et que le for appelle « profazada », et qui est plus intéressant. Il semblerait qu'il s'agisse de l'art d'improviser lors de foires ou d'autres événements, et c'est sans doute elles que l'on peut considérer comme les précurseurs des *bertsolaris* d'aujourd'hui.

Quoiqu'il en soit, dans le cas de ces femmes improvisatrices du passé, nous ne pouvons qu'affirmer qu'elles ont jadis existé.

Pour pouvoir retrouver un corpus bertsolaristique d'un certain niveau, il faut remonter à la fin du XVIIIe siècle. Le XIXe siècle est mieux documenté, tant en ce qui concerne les noms et les données biographiques qu'en ce qui concerne les pièces conservées. Un fait digne d'être mentionné et que personne n'a encore pu expliquer, est comment et pourquoi dans cet intervalle entre le XVe et le XIXe siècle, les femmes disparaissent de l'activité bertsolaristique, du moins en tant que sujet actif.

Cependant, dans les documents en notre possession il y a principalement des *bertsos* non-improvisés, mais des *bertsos* couchés sur le papier. On sait, grâce à quelques références, que les *bertsolaris* qui ont écrit ces *bertsos* avaient également l'habitude d'improviser, mais le nombre de *bertsos* improvisés à notre disposition est certainement peu abondant, et on ne peut pas dire grand chose sur les caractéristiques des *bertsos* improvisés de cette époque (leur processus de création, leur diffusion et leur consommation).





12

12. Aitor Sarriegi en train de chanter et Andoni Egaña à ses côtés, lors d'une représentation aux fêtes de Zizurkil (Guipuscoa), 2018.

13. Représentation de *bertsolaris* aux fêtes de Goizueta. Julio Soto en train de chanter, à ses côtés, Eli Pagola. Goizueta (Guipuscoa), 2016.

Xenpelar, Bilintx, Otaño...), dauden aztarnen arabera, improbisatzaile handiak izan ziren (gehienak, ez denak); halere, bertsolaritzaren historian ematen zaien garrantzia, idatzi (edo diktatu) zituzten bertsoei eta gure egunetara arte iritsi direnei zor zaie, eta ez, inolaz ere, bat-bateko bertsoei. Sortzeko moduagatik, bertsos horiek gehiago dagozkio kordel literaturatik hurbileko genero bati bertsogintza improbisatuari baino¹⁹.

XX. mendean zehar, bertsolaritzak aldaketa sakon eta progresiboa jasan zuen. Izenak bere horretan badirau ere, XX. mendearen hasierako bertsolaritzak ia ez dauka zerikusirik aurreko mendearen azken urteetakoarekin. Besteak beste, bertsolaritza mota idatziak, mendearen hasieran garrantzitsuena, bere nagusitasuna lagako dio bat-bateko bertsolaritzari. Liburuaren hasieran esan dugun bezala, bertsolaria, gaur egun, bere bertsoak bat-batean eta publiko baten aurrean asmatzen dituena da.

Laburbilduz: nahiz eta gauza jakina den bertsolaritza askoz ere lehenago erroturiko jarduera dela gure artean, bertsogintza improbisatuaren historia dokumentatua 1935. urte inguruan hasten da. Data horretara arte daukagun bakarra desafio batzuen berri eta bertsosolte batzuk dira, oroite kolektiboan bizirik iraun dutenak. Ezer gutxi esango dugu, beraz, data hori baino lehenagoko bat-bateko bertsogintzaz.

Bertsolaritzaren gainean egin diren historiak normalean 1800. urtetik aurrera hasten dira, hainbat denboraldi luze ezarriz, eta horietako bakoitzean protagonista handi bat edo batzuk nagusitzen dira. Halere, lan honetarako ezarri dugun ikuspuntutik begiratuta, sailkapen horiek ez digute balio hainbat arrazoirengatik. Lehenengo eta behin, esan dugun bezala, zaku berean sartzen direlako bi genero desberdin: bertsolaritza improbisatua eta improbisatua ez dena. Bigarren, kontuan hartzen diren denboraldien izendapena bera bat-bateko bertsolaritzari arrotzak zaizkion kategoriei dagokielako (aurre-errromantizismoa, errromantizismoa...).

12. Aitor Sarriegi kantuan eta Andoni Egaña ondoan, jaietako bertso-saioan. Zizurkil, 2018.

13. Goizuetako jaietako bertso-saioa. Julio Soto kantuan, ondoan Eli Pagola. 2016.

Bien qu'il y ait une mention antérieure, la première référence documentée et fiable du bertsolarisme improvisé date du début du XIXe siècle, plus précisément de 1802, et on constate que le format habituel de l'improvisation était celui des défis, généralement entre deux *bertsolaris*, qui pouvait durer des heures. Selon le chroniqueur Pablo Gorosabel (1803-1868), dans certains de ces défis, comme celui de Tolosa (Guipuscoa), environ 4 000 auditeurs s'étaient réunis, ce qui donne une idée du succès que le bertsolarisme improvisé recontrat à cette époque.

Quoiqu'il en soit, on ne sait pas grand-chose sur le bertsolarisme de cette époque, à part qu'il était très enraciné.

Au moment d'étudier les modes de créations et les *bertsos* des *bertsolaris* improvisateurs, nous n'avons un corpus de *bertsos* improvisés digne de ce nom qu'à partir des années 1960. Jusqu'à cette date nous ne possédons qu'un recueil de fragments et d'anecdotes qui ne permettent guère un travail de recherche fiable. Les *bertsolaris* considérés comme des « classiques » du bertsolarisme (Etxahun, Xenpelar, Bilintx, Otaño...) étaient, selon les traces dont on dispose, de grands improvisateurs (pour la plupart d'entre eux), mais le statut dont ils jouissent au sein de l'histoire du bertsolarisme est dû en grande partie aux *bertsos* qu'ils avaient écrits (ou dictés) et qui sont arrivés jusqu'à nous, et en aucun cas aux *bertsos* improvisés. Par la façon dont ces *bertsos* ont été créés, ils appartiennent davantage à un genre plus proche de la littérature que de l'improvisation¹⁹.

Au cours du XXe siècle, le bertsolarisme a connu un changement profond et progressif. Bien que le nom se soit maintenu, le bertsolarisme du début du XXe siècle a peu à voir avec celui de la fin du siècle. Entre autres choses, la modalité écrite du bertsolarisme, qui était la plus notable au début du siècle, a cédé sa primauté à la modalité improvisée. Comme affirmé au début de ce livre, aujourd'hui, le *bertsolari* est celui qui improvise ses *bertsos* devant un public.



13

Guk nahiago izan dugu bat-bateko bertsolaritza dokumentatuagoan zentratu, beste hainbat arrazoiren artean, XIX. mendeko bertsolaritzari buruz historia asko eta oso gomendagarriak daudelako²⁰. Jakina, egin dugun denbora-banaketarako proposamena, Xabier Payak ere, aipaturiko *Ahozko Euskal Literaturaren Antologia liburuan* jasotzen duena, behin behinekoa, eztabaidergarria eta hobegarria da. Proposamen honek XX. mendea baino lehenagoko bi aldi barne hartzen ditu. Bi alde horiek bat-bateko bertsolaritzaren historiaurrea dei genezakeena osatzen dute eta horrexegatik guk hemen hurrengo sei aldiak aintzat hartuko digutu (ikus 3. Taula. Eranskinak, 91. or.).

En deux mots : bien qu'il soit évident qu'il s'agissait d'une activité profondément enracinée depuis bien plus longtemps, l'histoire documentée du bertsos improvisé commence vers 1935. Jusqu'à cette date, nous ne disposons que des informations sur quelques défis et quelques *bertsos* qui ont survécu dans la mémoire collective. Nous ne pouvons donc pas dire grand-chose sur l'improvisation antérieure à cette date.

Les histoires du bertsolarisme en usage commencent généralement vers 1800, et établissent de longues périodes, chacune dominée par une ou plusieurs figures du bertsolarisme. Cependant, à partir du point de vue établi dans le présent ouvrage, ces classifications ne sont pas satisfaisantes pour plusieurs raisons. Tout d'abord parce que, comme nous l'avons dit, deux genres différents se mêlent : le bertsolarisme improvisé et le bertsolarisme non-improvisé. Ensuite, la dénomination des périodes établies fait allusion à des catégories étrangères au bertsolarisme improvisé (prémontisme, romantisme ...).

Nous avons préféré nous consacrer au bertsolarisme improvisé davantage documenté, entre autres, parce qu'il existe de nombreuses histoires vraiment recommandables sur le bertsolarisme du XIXe siècle²⁰. Évidemment, notre proposition de périodisation, que Xabier Paya évoque également dans son livre *Anthologie de la littérature orale basque* mentionné plus haut, est discutable et perfectible. Notre proposition comprend deux périodes antérieures au XXe siècle. Ces deux périodes constituent ce que nous pouvons considérer comme étant la préhistoire du bertsolarisme, et c'est pourquoi nous ne prenons en compte ici que les six périodes suivantes (voir le Tableau 3. Annexes, p. 91).

Bazterreko bertsolaritzatik lehenbiziko txapelketetara

BERTSOLARITZAREN ERREBINDIKAZIOA: MANUEL LEKUONA

XX. mendearen hasieran, Euskal Herriko intelektual gehienek erdeinatu egiten zuten bat-bateko bertsolaritza, bazterreko generotzat zeukaten, kalitate eskasekotzat bai literatura eta bai euskara aldetik, eta duintasunik gabekotzat. Salbuespen bakarretako bat Manuel Lekuona oiartzuarra dugu. Apaiz gaztea zela, Bergaran, 1930ean egin zen Eusko Ikaskuntzaren V. Kongresuan aurkeztu zen euskal herri-poesiaz hitz egitera, adibideak eman zituen, bertsolaritzaren mekanika sistematizatu zuen, dauden generoak sailkatu zituen eta horrela finkaturik utzi zituen bertsolaritzaren azterketa zientifikorako oinarriak. Berari zor diogu, neurri handi batean, ahozko literaturaren birgaitzea oro har, eta bat-bateko bertsolaritzarena bereziki; eta urte batzuk geroago haren iloba Juan Mari Lekuona, apaiza bera ere, gailenduko zen eginkizun horretan.

BAZTERREKO BERTSOLARITZATIK LEHENBIZIKO TXAPELKETETARA: 1935-1936


14. Juan Frantzisko Petriarena Xenpelar idazle eta bertsolariaren erretratua. Antonio Valverde Ayalde margolarriak 1969an egindakoa.

36ko gerraren²¹ aurreko urteetan, Euskal Herriko intelektualetako asko oinarri sendo baten bila zebiltzan berorren gainean *euskal kulturaren berpizkunde* eraikitzen, baina ez zetozen denak bat berpizkunde horretan bertsolaritzari zegokion tokiaren gainean. Joxe Ariztimuño *Aitzol* apaiza amesturiko berpizkunde horren giltzarria bertsolaritza izatearen defendatzaile sutsua zen. Auzi horri buruz idatzi zituen artikulu ugarietako batean bertsolariak nola aurkeztu behar duen proposatzen du: «*Discretamente tocado con arcaicas vestiduras*». Era horretan adats horaileko trobadore errromantiko bat gogoraraz dezan; gainera, bertsolariaren deklamazio mimikari nolabaiteko mugikortasuna ematearen eta dekoratu prosaikoa zeharo aldatzearen aldeko agertzen da²².

Neurri horiek ez ziren sekula ezarri, baina aipuak argi eta garbi erakusten du bertsolaritzari aitortzen zitzaion balioa ez zela, kasurik onenean ere, balio instrumental soiletik pasatzen. Euskal kulturaren berpizkunde irrikatu hura aurrera eramateko tresna gisa balio zezakeen neurrian balioesten zen bertsolaritza, oso nekez lor zitekeen helburua bestalde, populazioaren gehiengoa analfabetoa baitzen bere hizkuntzan.

1934. urtearen erdialdean Aitzol eta beste intelektual batzuk bildu ziren, eta hala sortu zen lehenbiziko Bertsolari Txapelketa bere araudi, bere epaimahai eta bere sari eta guzti. Mugimendu nazionalistako gazte erakundea, Euzko Gaztedi, arduratuko zen bertsoak kopiatzeaz, gero argitaratzeko. Sistema guztiz fidagarria ez bazen ere (eskuz egiten zen, bakoitzak bertsoaren zati bat kopiatuz, ondoren denen artean osatzeko), horrela sortu zen bat-bateko bertsolaritzari buruzko nolabaiteko fidagarritasuna daukan lehenbiziko dokumentua.

14. Portrait de l'écrivain et *bertsolaria* Juan Francisco Petriarena Xenpelar par Antonio Valverde Ayalde. 1969.



Du bertsolarisme marginal aux premiers championnats

LA REVENDICATION DU BERTSOLARISME : MANUEL LEKUONA

Au début du XXe siècle, la majorité des intellectuels basques méprisait le bertsolarisme improvisé, elle le considérait comme un genre marginal, de qualité littéraire et linguistique insuffisante et peu respectable. Une exception toutefois : Manuel Lekuona, jeune prêtre d'Oiartzun (Guipuscoa) qui participa au Ve Congrès des études basques qui se tint à Bergara (Guipuscoa) en 1930, où il parla de poésie populaire, illustré de divers exemples, il systématisa la mécanique du bertsolarisme, classa



15

BERTSOLARITZA KLASIKOAREN PARADIGMA: TXIRRITA

15. Jose Manuel Lujanbio *Txirrita* kantuan Bilaron.

Bat-bateko bertsolaritzari dagokionez, XX. mendearen lehen herena Jose Manuel Lujanbio *Txirrita*, hernaniar bertsolari handiak betetzen du ia erabat, mendearen hasieran jadanik bere garaiko bertsolaritzako funtsezko erreferentziak bat baitzen.

Gorpuzkera handiko gizona, eta, bertsolaritza ez beste edozein lanetarako afizio handirik gabea, bere irudia antzinagoko beste bertsolari batzuek ere baduton kondairazko lauso horretan bildua iristen zaigu.

Desberdintasuna da Txirritaren bat-bateko bertso asko kontserbatzen direla, ia denak ere pasadizo xelebreak eta pertsonaiaren izaera bihuriarekin lotuak.

Txirritaren bertso ospetsuenei dagokienez, baliabideen banaketak eta irudien trinkotasunak pentsarazten du ez zirela beti bat-bateko bertsoak izango, paperean idatziriko bertsoak baizik edo, hobeto esan, diktaturiko bertsoak, Txirritak berak ez baitzekien idazten. Bertsopaperen corpus horren gainean garatu da, esplizitu edo implizituki, bertsolaritza klasikoaren ereduak²³.

Txirritaren irudia ezinbestekoa da XIX. mendearen azken laurdenean eta XX.aren lehenengoan. Hala, hor aurkitzen dugu lehenbiziko bertsolari txapelketan, pronostiko guztien aurka Iñaki Eizmendi *Basarrik* irabazi zuena, Zarautzen finkaturiko bertsolari gazte bat bera. Txirritak hurrengo urtean irabaztearekin konformatu behar izan zuen, 1936ko txapelketan, hil baino hilabete batzuk lehenago.

les différents genres et posa ainsi les bases de la recherche scientifique du bertsolarisme. C'est à lui que l'on doit, dans une large mesure, la réhabilitation de la littérature orale et surtout, du bertsolarisme improvisé, tâche dans laquelle son neveu Juan Mari Lekuona, prêtre lui aussi, se démarqua quelques années plus tard.

DU BERTSOLARISME MARGINAL AUX PREMIERS CHAMPIONNATS : 1935-1936

Dans les années précédant la guerre civile espagnole²¹, une large majorité des intellectuels basques était déterminée à poser une base solide sur laquelle bâtir la « renaissance de la culture basque », mais tous n'étaient pas d'accord sur le rôle que le bertsolarisme devait jouer dans cette renaissance. Le prêtre Joxe Ariztimuño *Aitzol* était un des fervents défenseurs du bertsolarisme comme pierre angulaire de cette renaissance désirée. Dans l'un des nombreux articles qu'il écrivit sur ce sujet, il proposait que le *bertsolari* agisse « discrètement vêtu de vêtements archaïques », afin de donner une image de « troubadour romantique à la chevelure dorée », et plaide pour donner une certaine mobilité à la gestuelle déclamatoire du *bertsolari* et pour changer radicalement la décoration prosaïque.

Ces mesures ne furent jamais adoptées, mais la mention indique clairement que la valeur attribuée au bertsolarisme était, au mieux, une valeur instrumentale. Le bertsolarisme n'était apprécié que dans la mesure où il pouvait servir pour mener à bien la renaissance tant attendue de la culture basque, entreprise très difficile étant donné que la majorité de la population était analphabète dans sa propre langue.

En 1934, Aitzol et d'autres intellectuels se réunirent, et c'est ainsi que fut créé le premier Championnat de *bertsolaris*, son règlement, son jury et ses prix. L'organisation de la jeunesse du mouvement nationaliste Euzko Gaztedi se chargea de recopier les *bertsos* et de les publier. Bien que ce système ne soit pas très fiable (ils les recopiaient à la main, chacun transcrivant une partie du *bertso* et en le recomposant entre eux), c'est comme cela que vit le jour le premier document ayant une certaine fiabilité sur le bertsolarisme improvisé.

LE PARADIGME DU BERTSOLARISME CLASSIQUE : TXIRRITA

Le bertsolarisme improvisé de la première partie du XXe siècle fut dominé par l'imposante figure du *bertsolari* de Hernani (Guipuscoa) Jose Manuel Lujanbio *Txirrita*, qui déjà au début du siècle était l'une des références du bertsolarisme de l'époque.

Homme de grande taille et de peu de vocation pour tout autre travail autre que le bertsolarisme, sa figure est voilée par ce halo légendaire que d'autres *bertsolaris* plus anciens possèdent également.

La différence est que de nombreux *bertsos* improvisés de Txirrita sont conservés, presque tous liés à une anecdote et au caractère espiègle du personnage.

En ce qui concerne les *bertsos* les plus célèbres de Txirrita, la répartition des moyens et la densité des figures semble indiquer qu'il ne s'agit pas de *bertsos* improvisés, mais plutôt de *bertsos* écrits ou dictés, puisque Txirrita ne savait pas écrire. C'est sur ce corpus de *bertsos* écrits que le modèle classique du bertsolarisme s'est développé, de façon explicite ou implicite²³.

Txirritak, normalean, parranda giroan botatzen zituen bere bertsoak. Topiko bihurtu da garai hartako bertsolaritzari *sagardotegiko bertsolaritza* deitzea, horiexek baitziren bertso-saioak egiteko lekuri ohikoenak —eta gogokoena—, noizbehinka antolatzen ziren lehiaketetan ere parte hartzen zuen arren. Txapelketak, ordea, gertakizun solemnea ziren, bertsolaritzari berari arrotzak zitzazkion irizpide batzuen arabera antolaturiko errito moduko bat. Entzuleria ere desberdina zen. Han izaten ziren betiko bertsozaleak, baina baita Euskal Herriko intelektualak ere. Txirrita ez zen batere eroso sentituko giro arranditsu hartzan, eta garbi ikusten da hori, txapelketan, bere bastoarekin Aitzol epaimahaikidea seinalatuz, Txirritak bat-batean bota zuen honako bertso honetan:

*Laroiei urte gainean ditut
nago hanketako minez,
Donostiarra etorria naiz
herren haundia eginez.
Bi bastoiekin txit larri nabil
pausorik eman ezinez.
Euskera ia ahaztu zait eta
erderarikan jakin ez,
maixu batekin eskolan laster
hasi behar det latinez.*

Mota honetako bertsoetan Txirritaren bertsoek duten beste adierazgarri bat sumatzen dugu, erabat moderno bihurtzen duena: bere gatza eta zorroztasuna, egoera dialektiko konprometituenetan irtenbidea aurkitzeko zeukan abiladea.

ISILTASUN ALDIA: 1936-1945

Gerraren izugarrikerien ondoren, gerraostea ez zen hobea izan, batez ere, Euskal Herria bezala, frankistek *traidore* deklaratu zituzten lekuetan. Aitzol, lehenbiziko bi txapelketen sustatzaile nagusia, fusilatu egin zuten Hernanin 1936. urte hartzan bertan. Aldi haren funtsa Juan Kruz Zapirainen bertso honen isiltasun deiadartsuan islatzen da; analfabeta izaki, lo hartzen alferrik ahalegintzen zen bitartean, andreari diktatu zion bertso honek sublimatzen du garai hartako izugarrikeria:

*Sentimentu asko dauzkat nerekin
orain kontatu beharrak
ez dakit nola zuzenduko 'iran
egin dituzten okerrak,
pazientzitik ez naiz atera
Jaungoikoari eskerrak;
leku askotan jarri dituzte
tristura eta negarrak,
lehen hamar lagun ginan etxearen
ta orain hiru bakarrak.*

La figure de Txirrita est omniprésente dans le dernier quart du XIXe siècle et dans le premier tiers du XXe. Ainsi, il participa au premier championnat de *bertsolaris* que, contre toute attente, le jeune *bertsolari* Iñaki Eizmendi Basarri, basé à Zarautz (Guipuscoa), remporta. Txirrita dut attendre l'année d'après pour remporter le championnat de 1936, quelques mois avant sa mort.

Txirrita avait plutôt l'habitude de chanter dans une ambiance festive. C'est un lieu commun que de définir le bertsolarisme de son époque comme « bertsolarisme de cidrerie », car c'était là qu'avait lieu la plupart de ses représentations (ses préférées) bien qu'il ait également participé à des concours qui étaient organisés de temps en temps. Les championnats, quant à eux, étaient des événements solennels, une sorte de rite organisé selon des critères étrangers au bertsolarisme lui-même. Le public également était différent. On y retrouvait les amateurs habituels, mais aussi les intellectuels basques.

Txirrita ne devait pas du tout être à l'aise dans ce contexte emphatique, et cela se reflète dans ce *bertso* qu'il improvisa lors du championnat en pointant son bâton vers Aitzol qui faisait partie du jury :

*Je porte sur moi quatre-vingts ans
je souffre des jambes
Je suis venu à Saint-Sébastien
en boitant sacrément.
Je marche avec deux cannes,
et avec grande difficulté.
J'ai presque oublié le basque
et je n'ai pas appris l'espagnol
je vais me mettre bientôt
au latin avec un professeur.*

Dans ce type de *bertsos*, nous percevons un autre aspect du style de Txirrita qui le rend terriblement moderne : son ingéniosité, qui se manifeste dans sa capacité à trouver une solution dans les situations dialectiques les plus compliquées.

TEMPS DE SILENCE : 1936-1945

Après les horreurs de la guerre, l'après-guerre n'a pas été moins horrible, notamment dans les zones, comme le Pays basque, déclarées comme « traidores » par les franquistes. Aitzol, le principal promoteur des deux premiers championnats fut abattu à Hernani (Guipuscoa) cette même année 1936. L'essence de cette période se reflète dans le silence retentissant de ce *bertso* de Juan Kruz Zapirain, *bertsolari* analphabète qui sublime l'horreur de cette période en dictant à son épouse le *bertso* qu'il a composé en essayant vainement de s'endormir :

*Beaucoup de sentiments me submergent
que je dois raconter,
je ne sais pas comment ils vont réparer
tout le mal qu'ils ont fait,*



16. Manuel Olaizola
Uztapide eta Iñaki
Eizmendi Basarri
bertsolariak.

16

BIZIRAUPEN BERTSOLARITZA: 1945-1960

FUNTSEZKO ERREFERENTZIAK: BASARRI ETA UZTAPIDE

Hiru urte erbestean eta beste hiru zigor batailoi batean gatibu-lanetan eman ondoren, Iñaki Eizmendi *Basarri*, Gipuzkoara itzuli zen 1942an. Basarri Errezil gipuzkoar herrian jaioa zen, baina ia bere bizitza osoa Zarautzen egin zuen, jaioterritik kilometro gutxira. Erbestetik itzultzean, egundoko lana egin zuen. Euskal Herriko herri gehienetan jardun zuen bertsotan, aurrena Gipuzkoan eta gero gainerako probintzietan ere bai. Bere ohiko laguna, Zestoako beste bertsolari gazte bat izaten zuen, Manuel Olaizola *Uztapide*, 1935 eta 1936ko txapelketetan lehiakide izana bera ere. Hemen ezer gertatu ez balitz bezala jardun behar izaten zuten, iraganeko eta egunean egungo gauza asko alde batera utzita.

Uztapideren bertsolaritza Basarriren baino errazagoa eta herrikoagoa da. Segur aski, ez zeukan Basarriren kezka intelectualak baina, halere, osagarrik egokiena zen harentzat. Basarrik urratzen zuen bidea, berak erabakitzent zuen aldi oro nola komeni zen gai bakoitza tratatzea.

*j'ai encore de la patience
grâce à Dieu ;
ils ont causé dans beaucoup de foyers
de la tristesse et des pleurs,
avant nous étions dix à la maison,
nous ne sommes plus que trois.*

LE BERTSOLARISME DE LA SURVIE : 1945-1960

LES DEUX RÉFÉRENCES : BASARRI ET UZTAPIDE

Après trois ans d'exil et trois ans de travaux forcés dans les bataillons disciplinaires, Iñaki Eizmendi *Basarri* retourna en Guipuscoa en 1942.

Basarri naquit dans le village gipuzkoan d'Errezil (Guipuscoa), mais il vécut la majeure partie de sa vie à Zarautz (Guipuscoa), à quelques kilomètres de son village natal. En revenant d'exil, il travailla d'arrache-pied : il se produisit en tant que *bertsolari* dans la plupart des villes et villages basques, d'abord en Guipuscoa, puis dans les autres provinces. Son partenaire habituel était un jeune homme de Zestoa (Guipuscoa), Manuel Olaizola *Uztapide*, qui avait également participé aux championnats de 1935 et 1936. Ils durent chanter comme si rien ne s'était passé au Pays basque, en laissant de côté bien des choses, passées et présentes.

Le bertsolarisme d'*Uztapide* était plus simple et plus populaire que celui de *Basarri*. Il n'avait probablement pas les préoccupations intellectuelles de *Basarri*, mais ils étaient vraiment complémentaires. *Basarri* ouvrait la voie, c'est lui qui décidait comment il fallait traiter chaque sujet.

Le bertsolarisme de *Basarri* était plus intellectuel, pour le dire ainsi. Comme le dit Juan Mari Lekuona, il répondait à un projet bien défini²⁴. Les amateurs ordinaires, cependant, avaient plutôt un penchant pour *Uztapide*. À l'abri derrière l'initiative de *Basarri*, *Uztapide* ne manquait pas une occasion pour apporter sur chaque sujet le point final aux commentaires de *Basarri*. *Basarri* a travaillé également dans le journalisme, dans la presse écrite et à la radio, et a écrit un grand nombre de *bertsos*. *Uztapide*, lui, s'est surtout démarqué en tant qu'improvisateur et narrateur.

Le mérite de *Basarri* et *Uztapide* va bien au-delà du texte de leurs *bertsos*. À une époque où le bertsolarisme était pratiquement la seule activité en basque tolérée par le régime, ils réussirent à assurer la survie du bertsolarisme, en posant les bases de son développement futur. Comme nous ne disposons pas ici de suffisamment d'espace, nous ne ferons qu'évoquer rapidement la famille de *bertsolaris* qui a grandement contribué au maintien et au prestige des *bertsolaris*, notamment en Biscaye. Il s'agit de la famille Enbeita, évidemment : Kepa Enbeita *Urretxindorra* ainsi que, dans une large mesure, son fils Balendin.

Les conditions historiques étaient, bien entendu, très différentes au Pays Basque nord. À la fin de la Seconde Guerre mondiale, un médecin gipuzkoan en exil, Teodoro Hernandorena se mit à parcourir les trois provinces du nord, ville par ville, à la recherche de *bertsolaris*, et à organiser des festivals et des concours, souvent en payant de sa poche. C'est ainsi qu'apparut un grand groupe de *bertsolaris*, dont certains feront partie de l'élite du bertsolarisme des années 1960 et 1970, en particulier Xalbador et Mattin.

Basarriren bertsolaritza intelektualagoa da, nolabait esatearen. Juan Mari Lekuonak adierazi zuen bezala, ongi definituriko proiektu bati erantzuten dio²⁴. Zaletu arruntak, halere, mirespen handiagoa zion betiere Uztapideri. Basarriren ekimenaren atzean babesturik, Uztapidek ez zuen aukerarik galtzen Basarrik gai bakoitzaren gainean egiten zituen komentarioei azken ukitua emateko. Basarrik kazetaritzan ere jardun zuen, bai egunkarian eta bai irratian, eta bertso asko idatzi zituen. Uztapide, berriz, gehiago gailendu zen inprobisatzaile eta kontatzaile gisa.

Basarri eta Uztapideren meritua beren bertsoen testua baino askoz harago doa. Erregimenak euskaraz onartzen zuen jarduera bakarretako bat bertsolaritza zen garai hartan, bertsolaritzaren biziraupena segurtatzen jakin zuten, ondorengo garapenerako oinariak finkatuz. Daukagun espazio urritasuna dela eta, ez diogu eskainiko aipamen labur bat besterik bertsolaritzaren iraupenaren eta ospearen alde, batez ere Bizkaian, lan eskerga egin zuen bertsolari-familia bati. Enbeitatarrez ari gara, noski: Kepa Enbeita *Urretxindorra*, eta neurri handi batean, haren seme Balendinez.

Baldintza historikoak, jakina, oso desberdinak ziren Ipar Euskal Herrian. Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean, mediku gipuzkoar erbesteratu bat, Teodoro Hernandorenak, herriz herri korritzen hasi zen Iparraldeko hiru euskal probintziak bertsolarien bila, eta bertso-jaialdiak eta lehiaketak antolatzen, sarritan bere poltsikotik ordainduta. Horrela agertu zen bertsolari-talde aski ugari bat, horietariko batzuk 1960ko eta 1970eko hamarkadetan bertsolaritzaren gailur-gailurrean ibili zirenak, batez ere Xalbador eta Mattin.

ERRESISTENTZIAKO BERTSOLARITZA: 1960-1979

1950eko hamarkadaren amaieran, Euskaltzaindiak egundoko lana egin zuen euskal geografia guztia bertsolari bila korrituz, publikoan jardun zezaten animatuz eta probintzia-mailako txapelketak antolatzu, gero onenen artean Euskal Herriko Txapelduna erabakitzeko.

Ahalegin horien emaitza da 1960ko Bertsolari Txapelketa, Euskaltzaindiak berak antolatua. Aurrena probintzia-mailako txapelketak egin ziren, eta txapelketa nagusira (1935ean hasi zen saileko hirugarrena, gerra zela eta, hainbat urtetan bertan behera utzia egon ondoren) Euskal Herri guztiko onenak aurkeztu ziren.

Basarri izan zen txapeldun, pronostiko guztiak betez. Halere, hurrengo txapelketa (1962) Uztapidek irabazi zuen, eta, prentsako polemika garatz baten ondoren, Basarrik ez zuen gehiago parte hartu txapelketetan, beste zenbait jardunalditan lehiatzen jarraitu bazuen ere. Basarri erretiratu ostean, Uztapidek irabazi zituen 1965eko eta 1967ko txapelketak ere.

AUSPOA

Bertsolaritzaren motorra, 1960ko hamarkada honetan, ezbairik gabe, txapelketak dira, bertsolarien herrietan antolatzen diren bertso-jaialdietan parte hartzen jarraitzen badute ere. Txapelketa nagusietako bat-bateko bertsoak Auspoan argitaratzen dira, Aita Antonio Zabalak

LE BERTSOLARISME DE LA RÉSISTANCE : 1960-1979

À la fin des années cinquante, L'Académie de la Langue Basque - Euskaltzaindia, effectua un travail considérable, parcourant tout le Pays basque à la recherche de *bertsolaris*, les encourageant à se produire en public et organisant des championnats provinciaux pour qu'ensuite les meilleurs participent au championnat du Pays basque.

Le championnat de *bertsolaris* de 1960 organisé par l'Académie fut le résultat de ces efforts.

On organisait d'abord des championnats provinciaux, et ce furent les meilleurs du Pays basque qui se présentèrent au Championnat national (considéré comme le troisième de la série débuté en 1935 et interrompu par la guerre).

Ce fut Basarri qui rapporta le championnat, comme l'avaient prédit les pronostics. Cependant, le championnat suivant (1962) fut remporté par Uztapide et, après une vive controverse dans la presse, Basarri ne participa plus aux championnats, mais continua à se produire dans sa fonction de *bertsولي*. Une fois Basarri retiré, Uztapide remporta les championnats de 1965 et 1967.

AUSPOA: LE SOUFFLET

La force du bertsolarisme dans cette période des années 1960 furent sans aucun doute les championnats, bien que les *bertsolaris* se produisaient toujours dans les représentations organisées dans les différents villages. Les *bertsos* improvisés lors du Championnat national sont publiés dans Auspoa, une collection créée par le père Antonio Zavala en 1964, dont le siège se trouve à Tolosa (Guipuscoa), et qui est un véritable trésor du bertsolarisme et de la littérature orale en général.

Le nom (le soufflet) de cette collection s'est avéré être une métaphore ingénieuse, car c'est elle qui n'a cessé d'alimenter le feu de la littérature orale.

LES QUATRE CHAMPIONNATS DES ANNÉES 1960

C'est lors de ces championnats que les *bertsolaris* qui vont maintenir le bertsolarisme en vie tout au long du franquisme et des premières années de la transition se feront connaître : avec le duo de référence formé par Uztapide et Basarri, apparaissent également d'autres *bertsolaris* qui, une fois le duo précurseur retiré, assureront la continuité de cet art. Parmi eux, un trio de *bertsolaris* nés à Azpeitia (Guipuscoa) : Joxe Lizaso, Joxe Agirre Oranda et Imanol Lazcano. En même temps que ce trio, d'autres *bertsolaris* de cette époque tels que Jose Miguel Iztueta Lazkao Txiki, Fernando Aire Xalbador, Jon Lopategi, Jon Azpillaga ou Manuel Lasarte, jouèrent également un rôle important pour le bertsolarisme. On y reviendra plus bas. Il faut aussi mentionner : Jose Joakin Mitxelena, Martin Treku Mattin, Jon Mugartegi, Txomin Garmendia, Xabier Narbarte Xalto, Mikel Arozamena, Jesus Alberdi Egileor, Patxi Etxeberria ou Patxi Iraola. Bien que beaucoup plus jeunes, deux autres bertsolaris méritent de paraître dans cette liste pour le travail exceptionnel qu'ils ont fourni : Jose Luis Gorrotxategi et Anjel Larrañaga. Comme on peut le constater, tous les *bertsolaris* étaient des hommes.

1964an sorturiko bilduma, bere egoitza Tolosan duena, bertsolaritzaren eta, oro har, euskal ahozko literaturaren benetako altxorra da.

Bildumaren izena, Auspoa, metafora ezin egokiagoa gertatu da, berak mantendu baitu bizirik ahozko literaturaren sua.

1960KO HAMARKADAKO LAU TXAPELKETAK

Txapelketa hauetan agertuko dira frankismo garaian eta trantsizioko lehen urteetan bertsolaritzza bizirik mantenduko duten bertsolariak. Basarrik eta Uztapidek osaturiko bikote erreferentzialarekin batera, beste bertsolari batzuk agertuko dira, orain, aitzindariaren bikotea erretiratu ondoren, arte horren biziraupena segurtatuko dutenak. Horien artean Azpeitian jaiotako bertsolari hirukote bat gailentzen da: Joxe Lizaso, Jose Agirre *Oranda* eta Imanol Lazcano. Hirukote azpeitiarrarekin batera, garai horretako bertsolaritzaren euskarri izan dira Jose Joakin Mitxelena, Martin Treku *Mattin*, Jon Mugartegi, Txomin Garmendia, Xabier Narbarte *Xalto*, Mikel Arozamena, Jesus Alberdi *Egileor*, Patxi Etxeberria edo Patxi Iraola. Askoz gazteago izanik ere, badira beste bi bertsolari zerrenda horretan barne hartuak izatea merezi dutenak izan zuten jarduera nabarmenagatik: Jose Luis Gorrotxategi eta Anjel Larrañaga. Ikusten denez, bertsolari guztiak gizonezkoak dira.

Aipagarrienetako bat Manuel Lasarte da, Leitzan jaioa eta Orion finkatua, oso bertsolari maitatua eta miretsia izan zen zaletuen aldetik. Lasarteren bertsogintza gauzak ongi esatean oinarritzen da batez ere, bere errimak moldatzerakoan eta esaldiak bertoaren barruan txertatzerakoan erakusten duen erraztasun eta naturaltasunean.

Bertsolariak, 1960ko hamarkada honetan, eta baita 1970ekoaren lehen urteetan ere, mundua eta funtsezko balioak ikusteko eran, berarekin bat datorren publiko batentzat kantatzen du. Testuinguru horren oinarria Euskal Herriak eta bere hizkuntzak jasaten duten zapalkuntzan datza. Hala, hizkuntzaren iraupena segurtatzera datorrela dirudien edozein elementuk, aparteko testurik edo baliabiderik gabe ere, sortzen eta azalarazten du entzuleriareni emozioa. Euskal sentimenduak garbi adierazteko askatasunik ez dagoenez, gai eta balio tradizionalek, horien artean erlijioa gailentzen dela, ahalbidetzen diote bertsolariari entzuleengan emozio sakonak eragitea berto soilen bitartez, balio eta erreferentzia horiek aipatze hutsarekin. Txapelketetan ere apena erabiltzen den lau errimatik gorako bertsorik.

Txapelketa horietako bat-bateko bertsoetan sakontasun poetiko handiko testuen bila doanak desilusio latza jasango du. Bertsolariei proposatzen zaizkien gaia gehienbat topiko-arketipikoak dira. Bertsolariak badaki euskaltasunaren baieztagatze hutsak, ezkutuena dela ere, berto-saioaren inguruabar ia liturgikoetan (performance), emozio sakona eragingo duela bere entzulerian. Badaki entzulea bat datorrela kristau fedearekin eta balio tradizionalekin: amaren figura, lana, zintzotasuna...

Ez dago esaterik, noski, aldi horretako berto guztiak kalitate eskasekoak direnik. Bi bertsolari daude beren bertsoen testuaren kalitateagatik gainerako guztienean artean gailentzen direnak, bakoitzaren sendotasun-puntuak desberdinak badira ere. Bat Lazkao Txiki da; bestea, Xalbador.

L'un des plus importants fut Manuel Lasarte, né à Leitza (Navarre) et basé à Orio (Guipuscoa) ; c'était un *bertsolari* très apprécié et admiré par les amateurs de bertsolarisme. Le bertsolarisme de Lasarte repose avant tout sur les tournures, sur la facilité et le naturel dont il fait preuve lorsqu'il élabore les rimes et forme les *bertsos*.

Le *bertsolari*, dans cette décennie des années 1960 ainsi qu'au début des années 1970, chante pour un public avec lequel il partage étroitement une manière de voir le monde et des valeurs fondamentales. Cela, sur fond d'oppression enduré par le peuple basque et la langue basque. Dans ce contexte, tout élément qui semble assurer la survie de la langue suscite l'émotion du public, même sans grands textes ou sans grands moyens. En l'absence de liberté pour l'expression des sentiments basques, les sujets et valeurs traditionnels, parmi lesquels la religion se démarque, permettent au *bertsolari* de susciter des émotions profondes auprès du public à travers de simples *bertsos*, en mentionnant juste ces valeurs et ces références. Même lors des championnats, rares sont les *bertsos* de plus de quatre rimes.

Quiconque prétend trouver des textes d'une profondeur poétique dans les *bertsos* improvisés de ces championnats sera très déçu. Les thèmes proposés aux bertsolaris étaient pour la plupart des clichés archétypaux. Le *bertsolari* sait que la simple affirmation de la chose basque, même cachée, produira, dans les circonstances presque liturgiques de la représentation, une émotion intense auprès de son public. Il sait que l'auditeur partage la foi chrétienne et les valeurs de la tradition : la figure de la mère, le travail, l'honnêteté...

Tous les *bertsos* de cette époque ne sont évidemment pas de qualité médiocre. Il existe deux bertsolaris qui se distinguent par la qualité textuelle de leurs *bertsos*, bien que leurs points forts diffèrent. L'un est Lazkao Txiki, l'autre Xalbador.

LAZKAO TXIKI

Jose Miguel Iztueta *Lazkao Txiki* est, incontestablement, une figure mythique du bertsolarisme, et l'était déjà dans les dernières années de sa vie.

Comme Txirrita, il était vieux garçon, mais étant très petit, il était une figure différente de celle incarnée par le *bertsolari* d'Hernani (Guipuscoa). Comme Txirrita, Lazkao Txiki était avant tout *bertsolari*. Sa finesse et son esprit sont légendaires, qui, ajoutés à sa petite taille, sa voix candide et fragile et sa façon cadencée de chanter, ont fait de lui un *bertsolari* très apprécié de son vivant, et regretté à sa mort.

Lazkao Txiki, comme certains autres *bertsolaris* de sa génération, a su s'adapter à l'évolution du temps, et il était toujours le plus sollicité pour les représentations. L'une des images inoubliables du bertsolarisme est sa performance lors d'un dîner-*bertsos* organisé par l'émission de télévision *Hitzetik Hortzera* en 1989. Il devait chanter à propos d'un miroir à main, remis au *bertsolari* par le modérateur-présentateur au moment d'improviser. Sans quitter des yeux son image reflétée dans le miroir, Lazkao Txiki improvise trois *bertsos* anthologiques, dont l'un est transcrit ci-dessous :

*Il faut que je te chante
un bertsou ou deux,
pour une fois que nous sommes
face à face.*

LAZKAO TXIKI

Jose Miguel Iztueta *Lazkao Txiki* bertsolaritzako mitoetako bat dugu, zalantzarak gabe, bere bizitzako azken urteetan jadanik halaxe zen. Mutilzaharra, Txirrita bezalaxe, baina gorpuzkera txikikoa izaki, lazkaotarrak aurkezten duen pikaro mota hernaniarrak irudikatzen zuenaren guztiz desberdina da. Txirrita bezala, Lazkao Txiki ere, guztiaren gainetik, bertsolaria da. Ezagunak dira haren zorroztasuna eta gatza, eta horri gehitzen badiogu bere gorpuzkera txikia, bere ahots mehe eta hauskorra eta kantatzeko zeukan era kadentziatsua, aise ulertzen da bertsolari maitatua izan zela bizi izan zen denboran eta nostalgiaz oroitua hil zenez geroztik.

Lazkao Txikik, bere belaunaldiko beste hainbat bertsolarik bezala, denboren aldaketara egokitzen jakin zuen eta beti izan zen bertso-jaialdietara gehien deitzen zutenetakoa. Bertsolaritzako pasadizo gogoangarrienetako bat 1989an *Hitzetik Hortzera* telebista programak antolaturiko bertso-afari batean bota zuen bertso hauxe dugu. Gaia esku- isipilu txiki horietako bat zen, gai-jartzaileak kantatzeko une berean eman ziona. Ispiluan islatzen zen irudiaren gainetik begiak kendu gabe, Lazkao Txikik hiru bertso antologiko bota zituen, horietako bat honako hauxe:

*Aizak nik hiri bota behar dit
bertso koxkor bat edo bi,
behingoan jarri geranez gero
biok aurpegiz aurpegi.
Neri begira hortik daduzkak
alferrikako bi begi:
hik ez nauk noski ni ikusiko,
baina nik ikusten haut hi.*

XALBADOR

Fernando Aire *Xalbador* bertsolariaren kasua guztiz desberdina da. Beharbada bere euskalkiak, behenafarrerak, baldintzaturik, nahiko urrundua bertsozale gehienak ohituak zeuden eredu gipuzkoarretik, Xalbador, bizi izan zen garaien, bertsolari miretsia izan bazen ere, ez zen gertatzen jendearentzat Uztapide, Lazkao Txiki edo Martin Treku *Mattin* bezain hurbileko edo herrikoi.

Halere, edo agian horrexegatik, Xalbadorren bat-bateko bertsoen testuak dira denboraren iragaitea ongien jasan dutenak, gure gaur egungo sentsibilitatearentzat modernoenak gertatzen direnak.

Bere jaioterri Urepeleko artzaina izanik, harrigarria gertatzen da Xalbadorren fintasun poetikoa. Bere bertso-idatzien liburua *Oadolaren mintzoa* benetako harribitxi bat da, maila goren-goreneko antologia poetikoa.

Bere bertso-idatziak alde batera utzita, haietako asko gaur abesti bihurtuak, Xalbador bat-bateko bertsolari harrigarria izan zen, ohi ez bezalako sentsibilitate poetikoz hornitua. 1965eko txapelketan, bakarka egiteko bertsoaldi baterako gai hauxe jarri zioten: «Zure emazte zenaren soinekoari». Xalbadorrek nekez hobe daitezkeen bi bertso hauexek bota zituen:

17. Joxe Agirre eta Jose Manuel Iztueta *Lazkao Txiki* Bertsolari Egunean. Victoria Eugenia antzokia, Donostia, 1989.

17. Joxe Agirre et Jose Manuel Iztueta *Lazkao Txiki* à la Journée du bertsolari au théâtre Victoria Eugenia. Saint-Sébastien (Guipuscoa), 1989.



17

*Tu me regardes en vain
avec ces deux yeux :
tu ne me verras pas,
mais moi si, je te vois.*

XALBADOR

Le cas de Fernando Aire *Xalbador* est totalement différent. Peut-être que conditionné par son dialecte bas navarrais, éloigné du modèle guipuzcoan que la majorité des auditeurs avaient l'habitude d'entendre, Xalbador était un *bertsolari* admiré de son vivant, mais il n'était pas pour le public aussi cher et populaire qu'Uztapide, Lazkao Txiki ou Mattin.

Cependant, ou peut-être pour cette raison, ce sont les textes des *bertsos* improvisés de Xalbador qui ont le mieux résisté au passage du temps, ceux qui sont les plus modernes pour notre sensibilité actuelle.

Il était berger dans son Urepele (Basse Navarre) natal, et sa finesse poétique est saisissante. Son livre de *bertsos* écrits *Oadolaren mintzoa* (La voix du sang), est un véritable joyau, une anthologie poétique de plus haut niveau.

Mis à part ses *bertsos* écrits, dont nombre d'entre eux sont aujourd'hui des chansons populaires, Xalbador fut un improvisateur extraordinaire, doté d'une sensibilité poétique hors du commun. Au championnat de 1965, lors d'une de ses interventions en solo, il dut chanter sur le thème suivant : « À la robe de ta défunte épouse », et Xalbador improvisa ces deux *bertsos* difficilement perfectibles :

*Sachez qu'il est impossible
qu'un veuf soit heureux,
Que cette souffrance
ne s'allonge pas plus !
Ça fait un an que le corps
de ma dame repose dans le caveau,
sa robe se balance maintenant,
vide, devant mes yeux tristes.*

Pentsa zazute alargudu bat
ez daike izan urusa,
dolamen hunek, oi, ez dezala
anitz gehiago luza!
Orai urtea ziloan sartu
andreñoaren gorputza,
haren arropa hantxet dilindan
penaz ikusten dut hutsa.

Geroztik nihaur ere nabila
guzia beltzez jantzirik;
ez dut pentsatzen nigar eiteko
ene begiak hesterik.
Ez pentsa gero, andre gaxoa,
baden munduan bertzerik
zure arropa berri zoinean
har dezakeen emazterik.

Xalbadorrek improbisataile gisa lortu zuen ospe guzia —eta orain aitortzen zaion meritua— goiko horien mailako bertsoei esker irabazi zuen. Ez zeukan Basarirena edo Uztapiderena bezalako ahots ederrik ez eta Mattinena edo Lazkao Txikirena bezalako sinpatiarik ere.

Esan dugu, Xalbadorren euskara zela eta, entzule arruntak nekez ulertzen zituela haren bertsoak bere sakontasun eta osotasun guztian. Horren adibiderik adierazgarriena 1967ko txapelketan gertatu zen, epaimahaiak bere erabakia azaldu zuenean: Xalbador aukeratu zutela, eta ez Lazkao Txiki, azken urteetako irabazlearen aurka, Uztapideren

*Depuis, je suis moi aussi
tout vêtu de noir ;
je ne pense même pas pour pleurer
à fermer mes yeux.
Ne crois pas, ma chère,
qu'il y a au monde
une autre femme
qui puisse vêtir ta robe.*

Le prestige que Xalbador acquit en tant qu'improvisateur – et le mérite qu'on lui reconnaît aujourd'hui –, il le gagna grâce à des *bertsos* d'autant plus haut niveau ce que celui-là. Il n'avait pas la belle voix de Basarri ou d'Uztapide, ni la popularité de Mattin ou de Lazkao Txiki.

Comme nous l'avons dit, son dialecte empêchait l'auditeur ordinaire d'apprécier ses *bertsos* dans toute leur profondeur. L'exemple le plus significatif se produisit lors du championnat de 1967, lorsque le jury rendit son verdict : ils avaient choisi Xalbador, et non Lazkao Txiki, pour jouer la *txapela* lors du dernier tour de *bertsos* contre l'éternel vainqueur, Uztapide. Dès que le public apprit le verdict, il se mit à protester, et à siffler mais on ne sait pas trop si c'était contre Xalbador ou contre le jury. Les huées furent retentissantes et longues, très longues. Alors, Xalbador s'approcha du microphone et se mit à chanter un *bertso*, à peine audible dans ce vacarme :

*Mes frères et sœurs, ne pensez pas
que je sois à mon aise,
je serais bien mieux
en coulisse.
Si vous n'êtes pas contents,
ce n'est pas de ma faute...*

Tout d'un coup, les huées devinrent des applaudissements et des vivats pour Xalbador, qui put à peine terminer son *bertso* :

*...Si vous n'êtes pas contents,
ce n'est pas de ma faute :
vous m'avez sifflé
mais je vous aime encore.*

À partir de cette édition, l'Académie de la langue basque cessa d'organiser les championnats de *bertsolaris*. Suivirent les années de répression les plus violentes, les premiers attentats meurtriers de l'ETA, et le procès de Burgos. Hormis quelques parenthèses éphémères, pendant des années l'état d'exception fut la norme étatique au Pays basque. Xalbador mourut le jour où le bertsolarisme lui rendait hommage à Urepele, le 7 novembre 1976, nous laissant un livre difficilement surpassable, et un souvenir en tant que *bertsolari* qui grandit au fil des ans.

AU TEMPS DE FRANCO ET APRÈS LUI : LOPATEGI ET AZPILLAGA

Dans les années 1970, les *bertsolaris* qui participèrent aux championnats de la décennie précédente ont toujours le rôle principal. Alors que la fin

18. Fernando Aire Xalbador kantuan eta atzean Jose Luis Gorrotxategi 1967ko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalean. Anoeta pilotaleku, Donostia.



19. Jon Azpillagari eta Jon Lopategiri omenaldia. Zerain, 1992.

aurka amaierako saioan txapela jokatzeko. Erabakiaren berri jakin bezain laster, publikoa protestatzen eta txistuka hasi zen, ez dakigu seguru Xalbadorren aurka ala epaimahaiaren aurka. Txistualdia zaratatsua eta luzea izan zen, oso luzea. Horretan, Xalbador mikrofonora hurbildu eta bertsot hau kantatzen hasi zen, ia entzuten ez bazitzaion ere iskanbila haren erdian:

*Anai-arrebak, ez otoi pentsa
ene gustura nagonik;
poz gehiago izango nuke
albotik beha egonik
Zuek ez bazerate kontentu,
errua ez daukat ez nik...*

Eta bat-batean txistuak Xalbadorren aldeko esku zarta eta eupada bihurtu ziren eta, kostata bada ere, honelaxe amaitu zuen bertsot hura:

*...Zuek ez bazerate kontentu
errua ez daukat ez nik:
txistuak jo dituzute baina
maite zaituztet orainik.*

Edizio hartatik aurrera, Euskaltzaindiak utzi egin zion bertsolari txapelketak antolatzeari. Laster iritsiko ziren errepressoaren urte gogorrenak, ETAren heriotzko lehen atentatuak eta Burgosko epaiketak. Parentesi laburren batzuk kenduta, salbuespen-egoera izan zen hainbat urtetan Estatuaren ohiko araua Euskal Herriarentzat. Xalbador bere sorterri Urepelen hil zen, bertsolaritzak omenaldi bat eskaintzen zion egun berean, 1976ko azaroaren 7an, nekez hobetu daitekeen liburu bat, eta urteak igaro ahala handiagotuz doan bertsolari ospea utziz.

FRANCOREN GARAIA ETA ONDOREN: LOPATEGI ETA AZPILLAGA

1970eko hamarkadan protagonista jarraitzen dute aurreko hamarkadako txapelketetan parte hartu zuten bertsolariak. Diktadorearen akabera gero eta hurbilago ikusten den neurrian, gauzak zuzenago esateko premia ere areagotuz doa, agintarien baimenarekin edo gabe.

Bertsolaritz politiko-errebindikatzaileago baten premia nagusituz doa pixkanaka, publikoak eskatzen duena esatera ausartzen diren bertsolariet zigor asko jasan beharko duten arren. Bi bertsolari gailentzen dira aldi honetan: Jon Lopategi eta Jon Azpillaga.

1997an eskaini zitzaien ondo merezitako omenaldi batean, bi protagonistek, Lopategi hasita, honela deskribatu zuten garai hartako bertsolaritzatza:

imminente du dictateur est de plus en plus évidente, la nécessité de dire les choses de façon plus directe croît également, avec ou sans l'autorisation des autorités.

Peu à peu, un bertsolarisme plus politico-revendicative s'impose, ce qui entraîne bien de sanctions pour les *bertsolaris*, qui, malgré tout, osent dire ce que le public demande. Deux *bertsolaris* se distinguent à cette période : Jon Lopategi et Jon Azpilla.

Lors d'un hommage bien mérité qui leur fut rendu en 1997, les deux protagonistes décrivirent ainsi le bertsolarisme de cette époque, à commencer par Lopategi :

*Le moral était bas,
les persécutions nombreuses,
mais guidés par le cœur
nous avons continué.*

*Nous avons parcouru les sept provinces
y avons chanté de beaux bertsos,
quel jours heureux
comme chantres du Pays basque.*

*Nous allions partout
où nous étions demandés ;
nous apportions de la joie
dans les villes et les villages ;
la parole était notre raison,
le bertsot notre arme,
nous réclamions, comme aujourd'hui
un Pays basque uniifié.*



19. Hommage aux bertsolaris Jon Azpillaga et Jon Lopategi. Zerain (Guipuscoa), 1992.

*Animu asko ez zan izaten,
pertsekuzino ugari,
baina bihotzak hala aginduta
ez ginan ibili nagi.
Zazpi probintzi pasa genduzen
bertso ederrez kantari,
ze egun eder gozoak haiak
Euskadiaren pregoilari.*

*Deitzen euskuen leku danera
botatzen gendun pausua;
alaitasunez jartzen genduan
herria eta basua;
arrazoitzako berba genduan,
arma moduan bertsua,
gaurko moduan eskatzen gendun
Euskal Herri bat osua.*

*Honek premisak joten zituzen
eta konklusinoak nik,
ez zan hain gatxa sentimentua
argumentutzat izanik.
Asko ez ziren kontuan jausten
abertzaleak ziranik,
baina bihotza zabaltzen jaken
«hau Euskadi da» esanik.*

Francoren heriotzarekin, Euskal Herrian optimismo- eta itxaropen-giroa sortu zen eta hainbat garaipen pozgarri ospatu ahal izan zituen herriak: kartzelan zeuden lehenbiziko askapenak, ikurrina legeztatzea, amnistia, etab. Giro politikoa zeharo desberdina bada ere, bertsolariak oraindik ere, bere itxaropen, erreferentzia eta balio berberak partekatzen dituen publikoa dauka aurrean. Horregatik, nahikoan izan dugu Francoren heriotzaren ondorengo lehenbiziko urteak «Erresistentzia bertsolaritza» epigrafe honetan barne hartu, izan ere trantsizioko lehen urteetako bertsolaritza garatzen den testuinguruko baldintzak direla eta, hurbilago baitago diktadura garaiko bertsolaritzatik, geroago, publikoaren zatiketatik eta desengainutik sortuko den bertsolaritzatik baino.

HERRIARENTZAT ABESTETIK PUBLIKOARENTZAT ABESTERA: 1980-1998 AMURIZA

Hamahiru urteko parentesiaren ondoren, Euskaltzaindiak berriz ere bertsolari txapelketa bat antolatzea erabaki zuen, eta finala Donostian egin zen, 1980ko urtarrilaren 6an.

Gauzak (bertsolariak, bertsoak egiteko era) ez dirudi asko-asko aldatu direnik azken txapelketatik, 1967an Xalbadorri txistuak jo zizkioteneko hartatik.

Zortzi finalistetako batzuk 1967an ere finalista izanak ziren: Garmendia, Lopategi eta Gorrotxategi. Hauekin batera Patxi Etxeberria eta Anjel Larrañaga agertu ziren, bertsolaritza erraza, zuzena eta herrikoia praktikatzen zuten bi gipuzkoar. Manuel Sein Xanpun ere han

*Lui posait l'intrigue
et moi j'en tirais une conclusion,
ce n'était pas si difficile en ayant
les sentiments comme arguments.*

*Beaucoup ignoraient
qu'ils étaient abertzales,
mais ils ouvraient leur cœur
quand on disait « ici c'est le Pays basque ».*

Avec la mort de Franco un climat d'optimisme et d'espoir surgit au Pays basque, et le peuple put célébrer quelques heureuses victoires : les premières libérations de prisonniers, la légalisation de l'*ikurriña*, l'amnistie, etc. Bien que le climat politique soit radicalement différent, le *bertsolaris* avait toujours devant lui un public qui partageait les mêmes espoirs, les mêmes références et les mêmes valeurs. C'est pourquoi nous avons inclus les premières années postérieures à la mort de Franco dans ce chapitre intitulé « bertsolarisme de la résistance », car les conditions contextuelles dans lesquelles le bertsolarisme s'est développé durant les premières années de la transition sont plus proches du bertsolarisme du temps de la dictature que du bertsolarisme qui découle du désenchantement et de la division du public.

CHANTER D'ABORD POUR LE PEUPLE, PUIS CHANTER POUR LE PUBLIC : 1980-1998

Après une parenthèse de treize ans, l'Académie de la langue basque décida d'organiser à nouveau un championnat de *bertsolaris*, dont la finale s'est tenu à Saint-Sébastien, le 6 janvier 1980.

Les choses – les *bertsolaris*, la façon de faire les *bertsos* – ne semblent pas avoir beaucoup changé depuis le dernier championnat, celui de 1967 où Xalbador fut sifflé.

Certains des huit finalistes étaient également finalistes en 1967 : Garmendia, Lopategi et Gorrotxategi. Avec eux chantèrent aussi Patxi Etxeberria et Angel Larrañaga, deux *bertsolaris* de Guipuscoa qui pratiquaient un bertsolarisme simple, direct et populaire. Il y avait aussi Manuel Sein Xanpun, représentant le Pays basque nord (Xalbador était déjà décédé, et Mattin qui mourrait l'année suivante, chantait très peu en public).

Une nouveauté : il y avait deux *bertsolaris* biscayens. L'un d'eux était Jon Enbeita, fils et petit-fils des *bertsolaris* cités plus haut, Balendin et Kepa Enbeita *Urretxindorra*. L'autre, Xabier Amuriza, précurseur dans tous les aspects du bertsolarisme actuel. Amuriza avait été prêtre et emprisonné avec d'autres religieux en lien avec le nationalisme. Pendant sa détention, il se consacra à réfléchir sur le bertsolarisme et à écrire des *bertsos*.

Mais revenons au championnat de 1980. Lors des éliminatoires, Amuriza avait déjà étonné par la manière de composer ses *bertsos*. Cependant, lors de cette finale il exposa clairement sa façon de comprendre le bertsolarisme. Ce championnat fut le premier qu'Amuriza remporta, en battant Jon Enbeita. Deux ans plus tard, il remporta à nouveau la *txapela*, cette fois, en affrontant un *bertsolaris* mentionné plus haut : Jon Lopategi,

zen, Iparraldearen ordezkaritzan (Xalbador hila zen eta Mattin, handik urtebetera hilko zena, apenas agertzen zen jendaurrean).

Berritasuna bi bertsolari bizkaitar ziren. Bietako bat, Jon Enbeita zen, jadanik aipatu ditugun Balendin eta Kepa Enbeita *Urretxindorraren* semea eta iloba. Bestea Xabier Amuriza zen, gure egunetako bertsolaritzaren ia ikuspegi guztien aitzindaria. Amuriza apaiz izana zen eta beste elizgizon abertzale batzuekin batera espetxeratua. Bere presoaldian bertsolaritzari buruz gogoeta egiten eta bertoak idazten eman zuen denbora.

Baina itzul gaitezen 1980ko txapelketara. Kanporaketa-saioetan jadanik Amurizak harriturik utzi zuen jendea bertoak moldatzeko zeukan erarekin. Halere, txapelketa hartako finalean argi utzi zuen nola ulertzen zuen berak bertsolaritza. Txapelketa hura izan zen Amurizak irabazi zuen lehenbizikoa, azken saioan Jon Enbeita gainditu ondoren. Bi urte geroago berriro izan zen txapeldun, berdinketa-hauste dramatiko baten ondoren, jadanik aipatu dugun beste bertsolari baten aurka: Jon Lopategi, denbora berrieta ongien egokitu den bertsolarietako bat, eta bera ere txapelketa bat irabazteria iritsiko zena, 1989koa, bertsogintza distiratsu, sakon eta oso ongi moldaturiko batekin.

Asko hitz egin da 1980ko txapelketan Amurizak eragin zuen iraultzaz. Hona hemen aipatu ohi diren alderdietako batzuk: bere bertoak euskara batuan egiten hasi zen lehenbiziko bertsolaria izan zen; ordura arte sekula erabili ez ziren errimak ekarri zituen; Amurizaren irudiak sakontasun poetiko handikoak dira eta haien aurrekari bakarra Xalbadorren bat-bateko bertsoetan aurki daiteke.


Halere, hemen sustatzen dugun ikuspegi berritik, erretorikoa gehiago poetikoa baino, esan beharra dago Amurizaren ekarpen handienak, aipatu ditugunak ere gutxietsi gabe, honako hauek direla: errimak antolatzea berariazko komunikazio estrategia baten arabera eta ahozko baliabideak estrategikoki baliatzea intentzionalitate berri batekin, bestetik.

Bigarren alderdi hau dela eta, aipagarria da nola erabiltzen dituen Amurizak oralistek *formulak* deritzen horiek, eta nolako karga poetiko-erretorikoz hornitzen dituen. 1980ko txapelketako finalean, Amurizak, bakar-saioan, honako gai honi buruz kantatu behar izan zuen: «Gizona ez da ogiz bakarrik bizi». Hona bere saioko lehenbiziko bertoa:

*Gai horrek badu mamia
baldin ez banago gor;
hainbat jende gizaseme
ikusten ari naiz hor;
ogiaz gain gizonari
anitz gauza zaio zor,
bestela mundu hontara
hobe ez gintezen sor:
ogiakin justizia
behar dugu derrigor;
hau sinisten ez duenik
ba al da hemen inor?*

Amurizarekin lau errimatik gorako bertsoetarako joera hasten da, hurrengo txapelketetan areagotuz joango den joera. Bertoak luzatzeko joera hori ez da arrazoi gabea, sendotasun poetiko-erretoriko handiagoko bertoak egiteko premiak eragina baizik, eta premia horrek aldi berean testuinguru partekatuaren homogeneotasunaren galera ekarriko du.

20. Xabier Amuriza
kantuan Berto
Eiguren. Donostia,
2005.



20

20. Xabier Amuriza en
train de chanter lors de
la Journée du *bertso*.
Saint-Sébastien, 2005.

l'un des *bertsolaris* qui a le mieux su s'adapter (et adapter son bertsolarisme) aux temps nouveaux, et qui a réussi à remporter un championnat, celui de 1989, avec une improvisation brillante, profonde et très élaborée.

On a beaucoup parlé de la révolution suscitée par Amuriza lors du championnat de 1980. Voici quelques-uns des aspects de cette révolution, qui sont généralement évoqués : pour la première fois un *bertsolari* compose ses *bertsos* en *euskara batua* (basque standardisé) ; il emploie des rimes jamais utilisées auparavant ; les images qu'il utilise sont d'une très grande profondeur poétique qui n'ont de précédents que les *bertsos* improvisés de Xalbador.

Cependant, depuis la nouvelle perspective que nous soutenons ici, plus rhétorique que poétique, il faut dire que les plus grandes contributions d'Amuriza sont, sans conteste, les suivantes : l'organisation des rimes selon des stratégies de communication conscientes et l'utilisation stratégique des ressources orales avec une nouvelle intention.

Concernant ce deuxième aspect, se démarque l'utilisation par Amuriza de ce que les spécialistes de l'oralité appellent des « formules », et qu'il dote d'une grande charge poético-rhétorique. Lors de la finale du championnat de 1980, Amuriza dut chanter en solo sur le thème suivant : « L'homme ne vit pas seulement de pain ». Voici le premier *bertso* de son intervention :

*Ou je n'entends rien,
ou ce sujet est profond ;
je vois devant moi
beaucoup d'hommes ;*

Hori egiazatzeko, aski da Uztapidek 1962ko txapelketan bota zuen bertsot bat Amurizak 1980ko txapelketan abestu zituenekin konparatzea. Gaia antzekoa zen bi kasuetan: «Ama» Uztapideren kasuan, eta «Aita», Amurizarenan.

Hauxe izan zen Uztapidek abestu zuen aurreneko bertsoa:

*Hauxe da lan polita
orain neregana
alboko lagunendik
etorri zaidana.*

*Bertsoak bota behar
dira hiru bana
hortan emango nuke
nik nahitasun dana:
beste ze-esanik ez da
esatian «ama».*

Jakina, ia ezinezko da testu horrek, berez, inor hunkitza. Bertso guztiak ere ez zukeen hunkituko, entzuleria baten aurrean abesturik, baldin *ama* ez balitz entzuleek eta bertsolariak partekatzen zuten ongien sustraituriko balioetako bat, areago, benetako arketipo bat euskaldunen irudigintzan. Horrexegatik, Uztapidek *nahikoa* zuen ezarritako gaia aipatze hutsarekin, bere entzuleria hunkitzeko. Ikusten den bezala, gainerako silaba guztiak komunikazio-egoeraren beste elementu batzuk aipatzeko baliatzen ditu. Uztapidek abesten dion *ama*, bestalde, edozein *ama* da, ama bere horretan, han bildurik dauden guztiak ezbairik gabe partekatzen duten balio arketipiko bat. Gaur egun, ordea, ezein bertsolari ez litzateke ausartuko Uztapidek orduan baliatu zuen estrategia bera erabiltzera. Baino horrek ez digu eskubiderik ematen bertso hura arbuiatzeko, ez eta bere garaian eragin zuen hunkidura, pantomima edo fartsatzat hartzeko ere. Segur aski bertso sofistikatuago batek ez zukeen hainbesteko emoziorik eragingo. Beraz, esan beharra dago, amaitzeko, bertso bikaina dela, nahiz eta bere testuak ez daukan aparteko baliorik, poetika idatziaren teoriaren arabera.

Amurizak, ordea, 1980an badaki, bere entzuleria hunkiarazteko, ez dela *nahikoa aita* aipatze hutsa, zerbait gehiago behar duela, eta zerbait horrek elaborazio erretoriko handiagoa eskatzen du. Lehenengo eta behin, arketipoari abesteko aukera baztertzen du, eta berea besterik izan ezin daitekeen *aita* bat aurkezten digu. Zehazpen horrek, elaborazio erretoriko handiago horrek, bestalde, bertso mota handiagoa eskatzen du.

Bigarren bertsoan, segur aski saileko onena, areago zehazten du bere aitaren irudia, harekiko lotura *aita-semeen* arteko lotura baino zerbait gehiago dela adieraziz. Bere *aita* ez ezik, maisua ere bada, izan ere berak txertatu zion bertsolaritzarako zaletasuna. Horrela lotzen du Amurizak bere iragan pertsonal eta afektiboa bertsotan dihardueneko lekuarekin eta unearekin:

*Aita nuen nik umoretsua,
inoiz geza ta gazia,
harek agertu zidan bidea
baitzen bertsoz ikasia;
oi, nere aita, nire egunak
ere aurrera doaz ia,
baina zugandik hartua baitut*

*outre le pain, l'homme
a besoin de beaucoup de choses,
s'ils ne les avait pas,
il aurait mieux valu ne pas naître ;
avec le pain, la justice
nous est essentielle ;
Y a-t'il quelqu'un ici
qui ne le croit pas ?*

Avec Amuriza commence une tendance pour des *bertsos* de plus de quatre rimes, tendance qui se développera dans les championnats suivants. Cette tendance à faire des *bertsos* plus longs n'est pas sans raison, mais est liée à la nécessité de produire des textes d'une plus grande cohérence poético-rhétorique, besoin, qui, en même temps, amènera à la perte de l'homogénéité du contexte partagé.

Il suffit, pour le constater, de comparer l'un des *bertsos* improvisés par Uztapide lors du championnat de 1962 avec ceux qu'Amuriza a chanté au championnat de 1980. Le thème était semblable dans les deux cas : « La mère » pour Uztapide, et « le père » pour Amuriza.

Voici le premier *bertso* chanté par Uztapide :

*Voilà un beau sujet
que me propose
mon camarade
que voilà.
Nous devons chanter
trois bertsos chacun,
je pourrais dire
tout ce que je veux :
il n'y a plus rien à dire
quand on dit « mère ».*

Ce texte ne peut en soi, évidemment toucher personne. Le *bertso* dans son intégralité n'aurait non plus touché personne chanté devant un public, si « la mère » n'était pas l'une des valeurs la plus enracinée chez les auditeurs et le *bertsolari*, et même, si elle n'était pas un véritable archétype de l'imagerie populaire basque. C'est pour cela qu'il suffisait à Uztapide de seulement évoquer le thème imposé, pour produire de l'émotion auprès de son public. Comme on peut le voir, il utilise les autres syllabes pour faire référence à différents éléments de la situation communicationnelle. La mère à qui Uztapide chante est, d'autre part, n'importe quelle mère, la mère en soi, une valeur archétypale fortement partagée par le public dans sa globalité. De nos jours, cependant, aucun *bertsolari* n'oserait utiliser la même stratégie qu'Uztapide. Mais cela ne nous donne pas le droit de déprécier ce *bertso*, ni de qualifier l'émotion qu'il produisait à l'époque de pantomime ou de farce. Sans doute qu'un *bertso* plus sophistiqué n'aurait pas suscité autant d'émotion. Nous devons donc dire que c'est un excellent *bertso*, bien que le texte n'ait pas de valeur particulière à la lumière de la théorie de la poétique écrite.

Amuriza, quant à lui, sait qu'en 1980, la simple mention du mot « père » ne suffira pas à provoquer de l'émotion auprès de son public, que celui-ci a besoin de quelque chose de plus : une élaboration rhétorique plus profonde. Il écarte tout d'abord l'option de chanter à l'archétype du père, et présente un

*bertsotarako grazia,
nik egingo dut arbola haundi
zuk emandako hazia.*

Hirugarren eta azken bertsoan, bere aitari zuzendua bada ere, Xabier Amurizak entzuleria inplikatzen du, aurretiaz berak aitari eskaini dizkion txaloak eskatuz. Bertsoaren estrategia nagusia honetan datza, garatzen diharduen gaia lotzean bertan bizi duten benetako egoerarekin:

*Gai hau kolpera jarriko zenik
ia ametsa dirudi;
baserri hartan izan genduen
hainbat harri eta euri;
zu, aita, zinen hain on niretzat,
ez gogorra, baizik guri;
Euskal Herria nola dagoen
orain Donostin ageri,
niri jotako txalo guztiak
bidaltzen dizkizut zuri.*

Azken bertso horretan aurkitzen dugu Amurizaren beste abilezia handietako bat: bere antzerkirako gaitasuna, nolako maisutasunez uztartzen dituen bertso-saioa gauzatzen ari deneko planoak eta denborak, une horretan asmatzen ari den fikziokoekin. Nor txalotu zuen publikoak, Amurizak bere bertsoa amaitu zuenean? Bertsolaria? Aita? Biak? Dena dela ere, final guztiko unerik hunkigarrienetako bat izan zen hura.

Ikusten denez, bai Uztapidek amaren gaian eta bai Amurizak aitarenan, elementu berberak baliatzen dituzte: testua, testuingurua eta egoera. Aldatzen dena elementu horiek erabiltzeko modua da, eta bat-bateko komunikazioaren multzoan ematen zaien garrantzi erlatiboa.

AMURIZATIK EGAÑARA

Amuriza da ia bertsolari nagusi bakarra 1980ko hamarkadako lehen urteetan. 1982ko txapelketa, esan dugun bezala, berak irabazi zuen berriz ere.

Hurrengo txapelketaren antolaketa zela eta, polemika garratz bat sortu zen eta txapelketa atzeratu egin behar izan zen. Azkenean 1986an izan zen eta ez 1985ean, behar zukeen bezala. Baino antolaketaz ez zen arduratu Euskaltzaindia, baizik bertsolariz eta bertsolaritza mugimenduaren inguruan lanean ziharduten beste pertsona ezagun batzuez osaturiko lantalte bat. Txapelketa hura antolatzeko eratu zen 1987an Bertsolari Elkartea, 1996tik Bertsozale Elkartea izenarekin ezagutzen dena.

1986ko txapelketa Sebastian Lizasok irabazi zuen, jadanik aipatu dugun beste bertsolari baten semea, Joxe Lizasorena. Sebastian Lizasok, ahots sendoaz gainera, erraztasun harrigarría dauka bertsotan zernahi esateko, une egokian arrazoi egokia aurkitzeko eta bertsolariek hain berea duten abilezia hori lehiakidearen argudioak ezeztatzeko. Horri guztiari gehitu behar zaio berezko intuizioa beste zenbait bertsolarik erabiltzen dituzten baliabide eta estrategiak airean harrapatu eta bere

père qui ne peut être que le sien. Cette précision, cette élaboration rhétorique plus profonde, nécessite d'autre part, un type de *bertso* plus long.

Dans le deuxième *bertso*, peut-être le meilleur de la série, il précise la figure de son père, signifiant ainsi que leur relation est au-delà de la relation père-fils. C'est son père, mais c'est aussi son professeur, car c'est lui qui lui a insufflé son penchant pour le bertsolarisme. Amuriza relie ainsi son passé personnel et affectif au lieu et à l'instant où il improvise ses *bertsos*:

*Mon père était un homme joyeux,
quelquefois triste et amer,
il me montra le chemin
car il connaissait le bertsolarisme ;
cher père, moi aussi
mes jours diminuent,
mais comme j'ai appris de toi,
mon aptitude de bertsolari,
je ferai un grand arbre
de la graine que tu m'as transmise.*

Dans le troisième et dernier *bertso*, bien qu'il s'adresse à son père, Xabier Amuriza implique directement le public, auquel il demande des applaudissements qu'il dédie au préalable à son père. La stratégie principale du *bertso* est de relier le thème qu'il développe, à la situation réelle de la représentation :

*Tomber sur ce sujet
paraît presque un rêve ;
dans cette ferme nous avons eu
de la grêle et de la pluie ;
toi, père, tu étais si bon avec moi,
pas dur, mais doux ;
ici est réuni tout le peuple basque
à Saint-Sébastien,
tous leurs applaudissements
je te les dédie.*

Dans ce dernier *bertso*, nous trouvons une autre des grandes habiletés d'Amuriza : son aptitude théâtrale, la maîtrise avec laquelle il associe les différents plans et moments de la représentation, avec la fiction qu'il improvise à ce moment-là. Qui le public applaudit à la fin du *bertso* d'Amuriza ? Le *bertsolari* ? Son père ? Les deux ? Quoi qu'il en soit, ce fut l'un des moments les plus touchants de cette finale.

Comme on peut le voir, Uztapide, sur le sujet de la mère, et Amuriza, sur celui du père, emploient les mêmes éléments : le texte, le contexte, et la situation. C'est l'utilisation de ces éléments qui change, et l'importance relative qu'on leur accorde dans la communication improvisée.

D'AMURIZA À EGAÑARA

Amuriza était presque la seule figure du début des années 1980. C'est lui qui remporta de nouveau le championnat de 1982, comme nous l'avons déjà indiqué.

egiteko. Aspaldian izan da, eta da oraindik, publikoak eta antolatzaileek gehien eskatzen duten bertsolarietako bat. Lizasoren bertsolaritza esan daiteke bertsolaritza dialektikoa dela, zuzena, eta etekinik handiena ateratzen diela ahozko baliabide ohikoenei. Bere estrategiak garatzeko ez du errima kopuru handiko bertsoen beharrik. Alderantziz, mota horretako bertsoetan, txapelketetan hainbesteko garrantzia ematen zaien horietan, moldatzen da gaizkien, eta horrexegatik erabaki zuen gehiago ez aurkeztea. Argudiatu behar denean, ordea, entzuleriaren aurrean hainbat ordutan kantatu behar denean, gutxi dira itzalik egingo dioten bertsolariak.

1989ko txapelketako irabazlea, esan dugun bezala, Jon Lopategi izan zen, gaur egungo bertsolaritzako beste erreferente nagusietako bat.

Urtebete lehenago, 1988an, Euskal Telebista bertsolaritzari buruzko programa bat ematen hasi zen, *Hitzetik Hortzera*, eta huraxe izango zen bertsolaritzak 1990eko hamarkadaren hasieran ezagutu zuen gorakada nabarmena eragin zuten faktoreetako bat. Faktore nagusia, halere, beste bat izan zen: 1980ko hamarkadaren amaieran agertu zen bertsolari belaunaldi berria.

1986ko txapelketaren finalean lehiatu zen bertsolari-taldea da esan dugun belaunaldi berri horren adierazgarri: Sebastian Lizaso txapeldunarekin, eta Jon Lopategi, Jon Enbeita eta Xabier Amurizarekin batera, beste bertsolari batzuk agertu ziren gorenera iritsi eta bertan geratuko zirenak (horietako batzuk 1982ko finalean parte hartuak): Anjel Mari Peñagarikano, Iñaki Murua, Jon Sarasua eta Andoni Egaña zarauztar gazte bat, aurrerago mintzatuko garena.

